

ARGIA

GORKA AGIRRE

«ETAren apirileko oposamena edozein nahaietan jartzeko modukoa da»

KIROLAK


Zubietako krosa, ibilbide luzeko zaleen erromeria

UNIBERTSITATEA

Errektore berriaren programa, iragarritako hauteskunde ondoen

JOSE MARI AGIRRE

Kultura aurrekontuen %95 bahituta dago; sekulako loturak lortu ditugu»



JOXERRA GARTZIA

«KULTUR POLITIKAREN EZAUGARRIA EZA DA»




ESKAITZA BEREZIA

ARGIA REN

HARPIDEDUNENTZAT

ARGIaren harpidedun baza
ZEREN ZAIN ZAUDE
 Orain, gustoko titulua eskuratu dezakezu prezio ezin hobea

**gutxienez
 kalean
 baino
 % 25a
 merkeago**



Nobedade honetaz gain beste hainbat dago aukeran. Nahikoa duzu dei bat egitearekin eta behar duzun informazioa izango duzu

1.500 pzta.

- KATEBEGI GALDUA 1.350 pzta
- Jon Alonso
- EZ DUK ERRAZA KONPAI! 1.300 pzta
- Koldo Izagirre
- AXUN 1.000 pzta
- Abelin Linazisoro
- ZOAZTE HEMENDIK! 975 pzta
- Patri Urkizu
- AZKEN FUSILA 1.150 pzta
- Edorta Jimenez
- NON DAGO STALIN? 1.150 pzta
- Xabier Montoia
- EMAKUME BIBOTEDUNA 1.150 pzta
- Xabier Montoia
- GARTZELAKO POEMAK 900 pzta
- Joseba Sarrionandia
- BALIZKO ERROTEN ERRESUMA 900 pzta
- Koldo Izagirre



ESKAERA ORRIA

Izenburua	Prezioa	Kopurua	Guztira

Kobratu beharreko kantitatea

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN ABIZENAK _____ KALEA _____ ZBKIA. _____ PISUA _____ LETRA _____

TFNOA _____ HERRIA _____ KODE POSTALA _____

PROBINTZIA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

VISA / KREDITU TXARTELA _____ SINADURA _____

IZEN ABIZENAK _____

TARJETA ZENBAKIA (16 digitu) _____

KADUZITATE DATA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____ SINADURA _____


6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
8. Gorka Agirre, EAJko EBBko kidea. «ETaren proposamena edozein mahaitan jartzeko modukoa da». MIKEL JAUREGI.
12. Asteazken zehar. XABIER ARANBURU.
14. Txetxenia gerra zabaldu eta gogortzeko zorian. XABIER ARANBURU.
17. Xanti Bengoa, CCOOren idazkari nagusia EAEn. «Kongresu aurreko eztabaida sosegatua izan da EAEn». XABIER ARANBURU.
20. Zaleen erromeria Donostiako krozean. MARTIN AGIRRE.
23. Agentzien desfilean. AINHOA AZPIROZ eta ARANTXA ERASUN..
26. Pello Salabururen programa aztertu dugu. Iragarritako hauteskundeak. MYRIAM GARTZIA.
29. Joxerra Gartzia: «Beldur txikiz josita dago kultur mundua». JON SARASUA.
34. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
37. Ikus-entzunezkoen sektorea: legerik gabeko lurraldea. IDOIA TORREGARAI.
40. Bertso Egun 'kosmopolita' datorren 27an egingo da Donostian. IXIAR ROZAS.
42. Jose Mari Agirre, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Kirola eta Gazteria sailburuordea. «Kultura aurrekontuen % 95 bahituta dago; sekulako loturak sortu ditugu». J.J. PETRIKORENA.
45. Argitalpenak. JOSU ARANBERRI.
48. Irrati-telebista. ARRITXU ZELAIA.
52. Aukeran. MIKEL JAUREGI.
56. Denborapasa.
58. Zinpekoen Epaimahaia eta hizkuntz eskubideak. LUIX BARINAGARREMENTERIA.




JOXERRA GARTZIA:

Euskal kulturaren esparru anitzetan jorratu du legazpiarrak ikuspuntu zabalak. Ikastoletan jarduna, irratian saiatu eta telebistan hain ezagun bilakatu zen «Hitzetik hortzera» saioa bide ibilia, unibertsitatean murgildua da orain, idazleen elkarteko ordezkaritza eta bertsolarien arteko perrexil bezala ezagutu duguna. Hitz jario samurrez aurkitu du Jon Sarasuak Leioako kanpusean eta «beldur txikiz josita» dakusan kultur munduaz aritu zaigu lasai. Euskal Herrian kultur politika baten beharra aldarrikatzen du gogor, «gehiago egiten da kontabilitatea, kultur politika baino; lehenetsiak behar dira, gizartearekin eztabaidatu ondoren»./29

POLITIKA: Iragan urtean, batzuk zein besteak, «elkarrizketarako zegoen giroa» aprobetxatzeko gai ez zirela izan azaldu digu Gorka Agirrek. EAJko Euzkadi Buru Batzarreko kideak makina bat gauza esan dizkigu iazkoari buruz, eta baita etorkizunerako hausnarketak egin ere. Elkarrizketa, presoak, kaleko istiluak... izan ditugu solasgai Sabin Etxean./ 8




IKUS-ENTZUNEZKOAK: Ikei etxeak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarentzat egindako ikerketa lanean azaltzen denez, une zailak bizi ditu ikus-entzunezkoen alorrak. Hainbat gabezia eta hutsuneren inguruan plazaratu diren datuak eskaini ditugu, sektorea ordezkatzen duten hainbat adituren iritziekin batera. /37



ARGIA

Orain
ARGIAren
 harpidedun
 eginez gero
 hauetako
 konpakto,
 bideo edo
 liburu bat
 eskuratuko
 duzu

DOHAINIK



ARGIAre harpidedun izan zaite

AMAIA ZUBIRIAren
 KONPAKTOA

"NEGU GORRIAK IDEIA ZABALDU TOUR 95"
 GARBINE UBEDA

"TAKOLO PIRRITX ETA PORROTIX"
 BIDEOA

KIOSKOAN BAI

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ TELF. _____

HELBIDEA _____ POSTA KODEA _____

HERRIA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____

Entitate

Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia

%20a
 MERKELAGO

HARPIDETZA SARIA
 (BEZ barne)
 Hego Euskal Herria
 12.100 pztz
 Ipar Euskal Herria
 685 libera
 Espainia 12.100 pztz
 Beste Atzeriak
 15.750 pztz
 Airez 24.850 pztz

Euskal Kultur

Iparraldea ahaztuta

LIGAKo bigarren buelta hasi berria dugu, eta honekin batera zenbait fitxaketa berri ezagutu ditugu euskal futboleant. Euskal taldeak nahiko txarto ibili dira orain arte, baina itzaropena galdu gabe UEFAn sartzeko.

Athletic betidanik jokalaria euskaldunekin zelairatu izan da San Mamesen, eta politika hau aldatzeko asmorik gabe jarraitzen du. Baina, hona galdera: zergatik ez du Ipar Euskal Herria begiratzen bere fitxaketak egiteko garaian? Hor badira pena merezi duten jokalaria batzuk eta orain arte Frantziako edo Italiako ligetan dihardutenak. Jokalari horietako batzuek askotan adierazi dute Euskadiko selekzioarekin jokatzeko prest daudela. Honen adibide adierazgarrienak: Bordeleko Girondins taldean jokatzen duten Bixente Lizarazu, Franck Fontan edo François Grenet, eta Italiako talderik indartsuenetakoa den Juventus taldeko Didier Deschamps.

Bixente Lizarazuren kasuan, Donibane Lohizunen jaio, Hendaian hazi eta egun bere lanbideagatik Bordelen bizi den ezker lateralak argi utzi zuen Espainiako «Marca» kirol egunkarian bera euskalduna zela eta bere ametsa noizbait Realean edo Athleticen jokatzea dela.

Lizarazuren kasua baino ez da hau. Grenet, Fontan eta Deschampsen hitz egin beharko litzateke hauek zer pentsatzen duten jakiteko. Baina Deschampsen kasuan, Euskadiko selekzioak Boliviaren kontra orain urtebete pasatxu jokatu zuen partidurako, Iribar eta Expositok berarekin hitz egin zuten ea jokatzeko prest zegoen galdetzeko. Deschampsen, baldin eta bere taldearekin neurketarik ez bazuen eta taldeak berak uzten bazion, inolako arazorik ez zuela erantzun zien. Horrek zerbait esan nahi du. Ulertu nahi duenak...

Hona bada nire kritikaxoa Real eta Athleticen zuzendaritzei, batez ere azken

hauei: euskaldunek soilik joka omen dezakete Athleticen taldean. Lizarazu ez al da euskalduna? Eta Fontan? Eta Deschamps? Espainiako ligan atzerritarren fitxa izango luketela esan da. Baina ez al da Athletic sentimenduetan oinarritzen den taldea? Hala bada, eta ustez Euskal Herria zazpi probintziak osatzen dutela uste badute, ekin diezaiotela praktikan jartzeari. Horrela doakigu gainontzeko arlo guztietan...

**ANDONI ORBE
BASAURI (BIZKAIA)**

ARGIA alkohola promozionatzen

JOAN zen asteke astekariarekin batera, ARGIA sagardotegien gida eta posterra kaleratu zituen. Aste berean izan zen sagardotegien denboraldiaren zabaltzea, eta Clemente bezelako pertsonaia ezaguna sagardoa edaten eta goraiatzeko ikusi ahal izan genuen telebistaz eta hurrengo eguneko Euskal Herriko prentsa guztian.

Ez al gara konturatzen horrelako ekin-tzekin alkoholodun edaria ari garela promozionatzen? Begibistakoa da, sagardoaren zeharkako publizitate hau, haur eta gazte-oxen eskura ere iristen dela.

Lotsagarria iruditzen zait, horrenbeste alkoholaren aurkako kanpaina, horrenbeste hitzaspertu gai horren inguruan egin eta gero, alde guztietatik sagardoaren goraiamenez erasotzea.

Sagardoa bakarrik ez, honekin batera sagardotegietako giro apartari buruz ere barra barra hitzegiten da, bakailau tortila, intxaurrek, gazta eta beste hainbat jaki goxo jaten dela esanez. Baina, alkohola izaten da helburu bakarra eta janaria biga-

ren mailako edukizat geratzen da sagardotegietan.

Baina dena tximista eta trumoiak ez dadin izan, Olariagaren posterra bikaina dela aitortu beharrean nago.

Badakit nire eskutitz honek ez duela askorako balio izango, hurrengo urtean berriro ere antzeko gauzekin ibiliko baikara jira bueltaka.

**IGOR ARANBURU
IRUN (GIPUZKOA)**

Zuzenketa

ARGIAren 1.561. alean, urtarrilaren 21eko data zeramanean, okerra egin genuen Gizeartea sailean. Erramun Osari egindako elkarrizketan, berau AEK-ko koordinatzaile nagusia dela ipini genuen. AEKn, baina, koordinatzaile nagusiaren kargurik ez dago. Erramun Osa AEK-ko Bizkaiko arduraduna dugu.

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

HELBIDEAK


GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.pabiloia, 20160 Lasarte-Oria.
Tlf: 37 15 45. Faxe: 37 34 03/36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerrean. 48003 Bilbo.
Tlf: 410 34 34. Faxe: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxe Monastegia 70, 3. ezkerrean. 31011 Iruñea.
Tlf: 17 80 78. Faxe: 17 80 77.
IPARRALDEA: Harrobiko Etxea, 64122 Uruñia.
Fax-Tlf: 59 47 17 10

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA:
72562 E.

INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA:
Antza, S.A.L.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra sozial
- de la caja gipuzkoa san sebastián

ETAk inizatiba berreskuratu duela

ESPAINIAKO Estatuak ETaren kontra antolatutako gerra zikinaren ikerketan halako inboluzio usain bat nagusitu da azken asteotan. Juan Carlos Erregeak terrorismoaren kontra alderdi guztiek eduki beharreko batasuna aldarrikatu zuenean dei jenerikotzat hartu zitekeen pasarte hori, baina garrantzitsuagokok beste zerbaiteen isla izan zela adierazten duen zantzurik azaldu da.

Adierazgarria izan da «El Mundo» egunkariaren izarretako bat den Jesus Cacho kazetariak idatzitako orri osoa: Juan Alberto Belloch omen da bere handinahiagatik GALEko trapu zikinak ateratzea eragin eta ETaren kontrako antolakuntzari burua moztu diona, Espainia erakunde horren mende ipiniz. Bestetik, Bueren epaileak bere lana utzi du bi urtetarako, tartean Lasa

eta Zabalaren kasua burdin gori bat bailitzan eskuetatik aldentuz. «Aski da» esan bide dute Goardia Zibilaren eta Armadaren buruzagitzan. Eta Galindo jenerala beharrezkoa dela hasi da berriro aditzen.

PRESO politikoen sakabanaketak busti du hasieratik martxoaren 3ko hauteskundeetarako lasterketa. Familiartekoen baraualdiak, manifestaldiak, presoaren gose-grebak, harrigarrikiro bake ederrean iragan diren Donostiako jaietako ekitaldi guztiak... eta espetxeetako funtzionari burgalesa

ETAk bahitu zuela adieraziz «Egin-en azaldutako albiste laburrak itzali ditu hauteskundeetarako alderdiek aurkezten dituzten zerrendei buruzko espektatiba eta esamesak.

Presoen sakabanaketa edo Euskal Herriratzearen gaia iadanik Espainiako gai ere bada. Presondegiatako funtzionariak eta egitura osoa ero moduan. Juan Alberto Belloch lehendik zailtasunez betea zeraman bere agintaldiaren amaiera aterabide zaileko xedera bihurtuta. Eta laster agintea ukitu behar lukeen Jose Mari Aznarrek agendan lehen arazoa idatzita dauka.

Hauteskunde kanpainaren erdian, ETAk test gogor bat ipini die Espainiako alternantzia politikoari bezala Euskal Herriko politikariei. Eta europarrei, nork daki

Jaime Ignacio del Burgo izango da UPNko zerrendaburua hauteskundeetan, Erregio Batzordeak hala baieztatu ostean. Zerrendaburuaren izendatzeak eztabaida latza sortu zuen UPN-n, gehiengoa Lapazararen alde agertu arren, azkenean Del Burgo izendatu baitzuten, honek lehen postuan jarri ezean UPN utzi eta PP berpiztuko zuela mehatxatu ostean. (Arg.: «Diario Navarra»).



BIDARTEKO erorketaren ondorengo ETA nostalgiaz aipatzen da Espainiako komunikabideetan Jose Antonio Ortégaren bahiketa ezagutuz geroztik. Ia hiltzat jo zen erakundeak urte gogorra eman du 95ean, eta sekula burutu duen bahiketarik luzeenari bigarren bat —eta Euskal Herritik kanpo burutua— erantsiz estrainatu du 96a.

Operatibotasun aldetik ETAk berreskuratu duen indarra aski azpimarratu da azken hilabeteotan. Formulazio politikoei dagokienez, iaz Jose Mari Aznarri egindako atentatuaren ondoren apirilean plazaratutako agiria erreferente bihurtu du: batik bat EAJtik baina ez hortik bakarrik, politikariek balio bat eman diotelako. Orain, «El País» egunkarian Jose Luis Barberiak nabarmendu duenez, aldarrikapen posible eta euskal indar politiko nagusiek eta mugimendu sozialek berenganatzeko moduko bati heldu dio. Horri erantsi udazkeneko negoziaketa eskaintza eta gestioez zabaldu direnak. Iniziatiba politikoa berreskuratu duen erakunde ageri da ETA.

ETA-REN bahiketa zerrendak dabilta batera eta bestera, Jose Mari Aldaiarenak marka hautsi zuenetik, eta Logroñoeko funtzionaria harrapatu dutenean berriro. Izenen artean bi aipatu dira orain nagusiki: Barrios kapitaina eta Jose Maria Ryan. Pm-en azken ekintza sonatua eta Lemoizen kontrako kanpaina. Biak heriotzez bukatuak. Bata eta bestea, oso segida ezberdina izan zutenak.

ETako presoek sakabanaketa eta Euskal Herriratzea presoek, beren senitartekoez eta euskal gizartearen zati handi batek mahai gainean biziro ipini dituzten gaiak izateaz gain, alderdi politikoez elkarrekin adostu ez dituztenak dira. Kanpainaren erdian, eta ETak test gogor bat ipini dio Espainiako alternantzia politikoa bezala Euskal Herriko politikariei. Eta europarrei, nork daki.

PELLOZUBIRIA

EA-K KOLDO AMEZKETA ETA IBARRONDO BERRESKURATU DITU

Garaikoetxearen eta EAko gainerako buruzagien ahaleginetik ez dute erdietsi Joseba Azkarraga Madrilgo legebiltzarrerako hauteskundeetara eramatea. Aldiz, azkenaldi honetan berriro plazaratu ditu EAJgandik bereizteko unean garrantzia apartekoa izan zuten bi politikari. Manuel Ibarondo Arabako EA sortuberriaren burua izan zen eta kargu horri ertsiko dio berriro. Koldo Amezketa Nafarroako egituraren berriro bere burua erakutsi du eta gainera, Kongresurako zerrendaburu joango da.



JUAN MARI OLANOREN TARTEA

PRESOAK EUSKAL HERRIRATU BATERATU GABE?

Hitzak, keinuak... eta ekintzak?

Euskal Presoak Euskal Herrira! Hau da hilabeteotan indartzen doan Herri esijentzia. Koipe mantxa bat gisa gizartearen hedatzen ari den dinamika paregabea.

Ezkutuan gorde nahi izan dute presoek kontrako brutalitate justifikazina eta komunikabide gehienek paper aktiboa izan da politika horri efikazia eman dion zutabe nagusia, higuin garria! Gartzelatan biolentzia sistema etengabea eraiki dutenek ez dute botererik ilusio eta arrazoiz gainezka dauden presoek aurrean.

Helburu bat lortu nahi denean, bideak aurkitu egiten dira eta hori da ehundaka senitartekok egin dutena. Hautsi dute ixiltasun harresia. Milaka ordu eman dituzte informazioa hedatzen. Egun, gizarteak badaki legearen kontrako den sakabanaketa ardatz duen «politika penitentziarioak», preso eta senitartekoen sufrimendua areagotuz, Ezker Abertzaleari txantaita politikoa egitea duela helburu. Guzti hau, «juez y parte» izan nahi duten «Bake Hitzarmen» sinatzaileek erabaki dute.

Demokrata zigilua patrimonializatu nahi dutenentzat, erreinsertatuak lortzeko zilegi da gartzelaren indefentso daudenean kontra biolentzia koldarki erabiltzea.

Orain, gizartearen presoak behartuta,

keinua egin eta Euskal Herrira hurbildu egin behar omen dira. Presoak politikoak eta sakabanaketa ilegala dela esan dute batzuek, baina horren ondorioak aplikatu gabe. Sakabanaketa ilegala bada, eta hala da, Euskal Herrian elkartzea da alternatiba bakarra, eta ez ilegaltasun hori gradu batean jaitea, soilik hori suposatzen baitu Gasteizko Legebiltzarrak erabakitako hurbiltzetaren goxoki pozoindua.

Preso politikoak badira, eta hala dira, preso politikoek statusa dagokie eta hortik erarortzen da kolektiboki elkarbizitza egiteko duten eskubidea. Formazioa landu, kirola egin edota Euskal Herriko bizitza sozial, politiko eta kulturalen parte hartzea ez da pribilegioa, eskubidea baino, eta gizaki orori dagozkigun Oinarrizko Eskubideak ere zor zaizkie presoek. Arrazoi nabari bategatik: ez dagoelako hori ukatzen dien inongo sententzia judizialik.

Presoak Madriletik gora edota Euskal Herrira ekartze soilak ez du konpontzen sakoneko arazoa gartzelako bizibaldintzak aldatzen ez diren artean, alegia txantaita mekanismoak baztertu artean. Adibidea, egungo errealtatea. Hego Euskal Herriko gartzelako presoak dira txantaita krudelena bizi dutenak, sakabanaketaren mehatxua egunero gainean dutelako.

Beraz, euskaldunak atxilotu eta espainiarrei entregatzeko kompetentzia estatutarioa dutenak, presoek eskubideak bermatzearena ere onartu behar lukete, eta Euskal Legebiltzarrei dagokie hori!

Gorka Agirre, Euzko Alderdi Jeltzaleko EBBko kidea

«ETAren proposamena edozein mahaitan jartzeko modukoa da»

Anberesen jaioa, erbestean, orain 46 urte. Hala, Anbereseko euskara hitz egiten duela dio. 1975era etorri zen Ipar Euskal Herrira, eta 78az geroztik Bilbon bizi da. Orain lau urtetatik alderdi jeltzaleko EBBko kide da Gorka Agirre.



ETAk 1995eko apirileko agiri sonatu bura plaza-ratu zuenean oso itxaropentsu azaldu ziren EAJko zenbait kide: Egi-bar, Arzalluz...

Berrikuntzak ikusi genituen. «Egin»-ek berak kaleratu zuen EAJk serio eta demokratikotzat jotzen zuela ETAren proposamena. Egia da agiri-ko proposamenak, autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasunarena, serioak direla. Baina proposamen serioa izan arren, be-

raiek proposatzen duten moduan, armen presioaren bitartez, indarra galtzen du.

Proposamen hori edozein mahaitan jartzeko modukoak dira, Euskal Herriko indarren artean sakonki azter daitezkeenak. Baina armen presiorik gabe. Izan ere, autodeterminazio eskubideak irteera izan dezake, bai European eta baita

Estatu mailan ere. Eta lurralde batasunari dagokionez, zenbait gaitan Nafarroa, Iparraldea eta EAE batzen joateko formulak badaude.

Berrikuntza hori zertan ikusi zenuten?

Ez zen betiko «KAS» alternatiba bere bost puntuekin onartzen da edo bestela gatazkak jarraitu egingo du hori. Bazekarren beste

konpromezu bat ere: ETAk eta Madrilgo Gobernuak hitz egin ostean, azken erabakia herriaren esku egongo litzatekeela. Eta hori ere positiboa da.

Ia hamar hilabete pasa dira ETAk agiria plaza-ratu zuenetik. Zer gertatu da bitarte bonetan?

Agiria aztertzeke HBrekin urrian bilera egin ostean, us-

«HB elkarrizketetan serio jarduteko beldur dela maiz pentsatu izan dut». (Arg.: Alberto Elozegi).

te genuen bilera horrek jarraipena izango zuela. Baina handik hiru astera «Egin»-en bilerari buruzko euren akta azaldu zuten, ELAren, CCOOren, LABekin eta EAren izandakoenekin batera. Agiriari garrantzia eman ez ateak ireki nahi zituzten, baina gero beraiek itxi zituzten filtrazio horrekin. Gero guri leporatzen digute urratsik ez ematea. Askotan pentsatu izan dut elkarriketetan serio jarduteko beldur direla.


Euskal Herriko baketze prozesu batean urratsak emateko esperantzarik izan al duzu 1995ean?

Martxoan Elkari-ren bake konferentziarekin hasi ginen. Bestetik, Irlanda, Palestina eta Israel, eta Kortsika-koarekin oso itxaropentsu izan gara. Egoera ezberdinak izan arren, horietatik ere zeozer ikas daiteke. Eta giro hori nazioarte mailan, Europa mailan aprobetxatzea posible zen. Legealdi amaiera honetan, Madrilgo Gobernuarentzat ere ez zatekeen batere txarra gatazkari irtenbidea ematea.

Faktore horiek eta zegoen giroa ikusita, 95ean izan da zenbait gairen inguruan hitz egiten hasteko esperantzarik. Baina ez gara gai izan, ez batzuk eta ez besteak, hori gauzatzeko.

ETAren azken ekintzekin ez al da boztu giro hori?

ETAk azken agirian zioenez, mezua igorri zuen Madrilera eta erantzunik ez zuen jaso. Ez dakit hori egia ote den. Baina horrelako atentatuekin egungo Madrilgo Go-



«Azken atentatuekin ETAk ez dio urratsak emateko denborarik utzi PSOeren Gobernuari». (Argazkia: Alberto Elósegui).

bernuari ez dio denborarik utzi urratsik emateko.

Zein faktorek alda dezake une bonetako panorama distentsio aldera?

ETAk bakeari aukera bat emateak. Su-etena beharrezkoa da edozein prozesu serio aurrera eramateko. Beharrezkoa da hitz egitea, baina ez gara gai eseri eta lasai-lasai hitz egiteko.

Dagoen gorrotoa ere azpimarratzekoa da. Ez dut ulertzen gorroto maila honetara nola hel daitekeen. Gainera, gorroto hori elikatu egiten da. Eta elikatzen da

mundu abertzalearen barruan. Ezen uneotan badi-rudi ENAMen etsai handiena EAJ dela. Eta ez gara ohar-tzen abertzaleok sendietan, ikastoletan, kultur munduan eta abarretan batzen garela. **ETAk, azken agirian, zuen morroitzat jo du Elkari.**

Elkari-k ez du babesik behar, eta ez da gure morroi. Elkari-k badu bere nortasuna. Gurekin harremanak izan ditu, beste alderdiekin izan dituen bezala. Gauza batzuetan bat gatoz, eta beste batzuetan ez, bakoitzak bere iritzia du.

ETAk bere porrotak besteon erruagatik gertatzen direla esaten du. Azken agiriaren arabera, ETAk Madril-ekin nahi zuen tratua guk

HAMARREKOA

KARMELO LANDA

«Bere agerpen publikoetan, harrokeria pertsonifikatua»

JUAN MARI OLLORA

«Bihotzeko laguna, pentsalari handia»

JONAN FERNANDEZ

«Zintotasun osoz, bake eta elkarriketa bideak bilatzen denbora gehien pasatzen dutenetakoa»

ENRIQUE MUJICA

«EAJren elkarbizitzan urte asko egin dituen borrokalari sozialista historikoa»

ELI GALDOS

«Gizon ekile eta abertzalea, herri honen zerbitzura urte asko daramatzana»

JAIME MAYOR OREJA

«Herri honentzat ona litzateke abertzaleekin bere osaba-aitonak izan zituen harremanak mantenduko balitu»

JOSE LUIS ELKORO

«Zorte onena opa diot herri honen normalizazioaren aldeko bere lanean»

MARIO ONAINDIA

«Ibilbide luzea eta konpromezu zailak oso fronte ezberdinetatik»

LUIS MARI RETOLAZA

«Historikoa, nire emaztearen aita eta nire hiru seme-alaben aitona»

CARLOS GARAIKOETXEA

«Inoiz ez da berandu hautsitakoa konpontzeko»

«**Preso askok esan digute bere garaian sakabanaketa ona izan zela, barruko egoera jasangaitza zelako»**



«Porrot beraiek egin eta errua besteoi leporatzen digu ETAk». (Argazkia: Alberto Elósegui).

apurtu dugula dirudi. Euren porroten errudun ez dira sekula beraiek, beti beste batzuk jotzen dituzte erruduntzat. Kasu honetan Elkarri eta gu. Gobernu espainolaren aurka baino gogorrago ari dira gure aurka. Aljerrekoan berdin: beraiek porrot egin eta errua besteoi egotzi, gehienbat EAJri. Autokritika egiten ere ikasi behar dute beraiek.

Udazkeneko agiri batean, ETAk «bitza betetzeko» eskatzen zion zure alderdiari. Zerbait berezia ulertu zenuen?

Ez zegoen inori zuzendua zehazki, eta azken agirietan ikusitakoaren arabera, EAJri baino Madrili zuzendutako mezua dela esango nuke.

PPren adierazpenak ezagutuz, gatazka ez al da oraindik gehiago gaiztotuko Aznar Moncloara iritsiz gero?

Lau urtetan luzatu duten mezua ez dute egun batetik bestera aldatuko. PP Gober-

nura helduz gero gauzak gehiago okertuko dira. Galdera da: hemengo sektore batek hori nahi ote du? Tentsio gehiago eragin eta bide horretatik segi? Agian bai.

Euskal presoan sakabanaketarekin zer egin behar da?

Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamenarekin bat nator; alegia, Euskal Herrira inguratu.

Bateratu gabe?

Ez dakit hemen bateratzerik badagoen. Euskal presoak ez direla ETAkoak soilik ezin ahaztu. Eta ez dakit lekurik badagoen hemengo kartzeletan denak bateratzeko. Baina posible da urrunegi ez dauden zenbait kartzeletara inguratzea.

Preso guztiak hemen bateratuz gero, euren artean

eztabaida gogorra sortuko litzatekeela iruditzen zait. Ez dut uste presoan kolektibo osoa orain gertatzen ari denarekin bat datorrenik: Valentziakoarekin, Vallecasoarekin, kaleko indarkeria egoerarekin...

Inguratze hori aurrera eramateko zein pauso emateko asmoa du EAJk?

Legebiltzarrak lortutako akordio hori Madrilen defenditu eta gestionatzeko konpromezua hartu dugu. Presoen egoerak distentsio-biderako garrantzi handia du.

Sakabanaketan EAJk zuzeneko erantzukizuna duela sarritan salatu du Ezker Abertzaleak.

Beti berdin gabilta: beraien porroten erruak besteoi egotzi. Presoei dagokienez,

«Elkarrizketarako pasa den urtean sortutako giroari probetxua ateratzeko gai ez gara izan»

EAJ saiatu izan da guregana heldu diren eskaerak betetzen. Etxe honetatik senitar-teko asko pasa dira, eta preso askok deitu izan digute telefonoz kartzelatik. Eta ahaleginak egin ditugu erantzunak emateko eta gestioak egin ditugu Madrilen preso baten edo bestearen egoera aldatzeko. Baina beti beraiek eskatuta, presoek zein senideek, ez gu sartuta. Gauza bat esango dizut: preso asko etorri izan zaizkigu sakabanaketa bere garaian ona izan zela esanez, barruko egoera eta tentsioa jasangaitza zelako.

Ezker Abertzalearen inguruko gazteak aztertu berri dituzte soziologo batzuek. Zer gertatzen da zure ustez gazte horiekin?

14 edo 15 urteko gazte batek molotov-koktelaz Ertzaintzari erasotze horretan, ez dakit zein helburu politiko dagoen. Gazte horien artean denetik egongo da: komentzitutakoak, oso ideologizatuak, zenbait arrazoiengatik gizarte honetan pozik ez dauden gazteak... Arrazoi politikoez eta atsekabe sozialekoek bat egiten dute.

Gazteen manipulazioa ere badago. Bestela, ezin dut ulertu 14 edo 15 urteko gazte batek Ertzaintzaren auto bati molotov-koktelaz eraso egitea. 18 edo 20 urtekoekin kontua bestelakoa da.

Gazte horiek eta Ertzaintzak bakerik sinatu abal izango dute? Nola?

Ertzaintza gazte horiekin noiz sartzen da? Kanean astakeriak egiten hasten direnean. Kaleko istiluena, gainera, ondo antolatutako kontua da. Gazte horiek tentsio soziala mantentzeko erabiltzen dituzte. Beraz, kontua ez da bakea sinatzea,

batzuek euren jarrerak aldatzea baino. Ezen ez didate esango Ertzaintza indar errepresiboa denik. Noski, autobus bat erretzen hasten badira ertzainek beren lana bete beharko dute.

Aldaiaren babiketa dela eta, zenbaitek taktika aldatzea eskatu du: kaleko mobilizazioak eten, babiketa bukatzeko modua egin eta abalik eta azkarren historiaren orri hau pasa.

Gizon bat bahituta eduki eta jendea kalera ez irtetea txarra litzateke, azken batean bere askatasuna baino ez baitute eskatzen. Kalera irteten eta bere askatasuna eskatzen jarraituko nuke askatu artean.

Baketze prozesu ereduak aipatzen basita, Irlanda aipatu izan da eta baita Oslo ere, Aljerreko saioa abaztu gabe. Zein da zuk posibleen ikusten duzuna?

Irlandakoa. Baina Oslokoak ere baditu bere zati garrantzitsuak. Irlandakoa da, baina, guretzat erreferente onena: ardatz abertzalearen arteko akordioa, akordio horren inguruan gero Dublingo Gobernuan adostasuna bilatu, eta gerora Londresko Gobernura pasa.

Su-etenaren elkarrizketak

Mahaia eta obsesioak konpartituz

ARGIA astekariak Gorka Agirrerren profila egitea eskatu dit adeitasunez, 30 edo 40 bat lerrokoa. Ez dakit eskatutako luzera betetzetik izango dudana, eta ez Gorkak merezi ez dituelako, esan behar denak, garrantzitsua denak, leku gutxiago hartzen duelako.

Gorkarekin azken lau urteok igaro ditut harreman estuan, EBBko mahaikide izanik. Mahaia eta obsesioak konpartituz. Bat nagusiki: gure herriarentzako bakea ekartzen lan egitea. Sakonki txikitzen ari gaituen egoera honekin amaitzea.

Ikuspegi abertzale batetik egitea, guztien arazoak ulertuz, nazionalistak izanda ere, gizartearen

gehiengoa ulertuko duen eta inor baztertuko ez duen alternatibak landuz. Honetarako beti egon da eta egongo da prest Gorka. Ez zaizkio falta izan orduak, lasaitasuna, pazientzia, entzuten jakitea...

Azken batean, ontasuna; Gorka, beste edozeren gainetik, gizon ona baita, eta egun hori ez da jende askogatik esan daitekeen ezaugarria.

Ontasunarekin batera, gainontzekoei transmititzen dien presentzia animoso nabaria. Batzuk tristezian eta esperantza ezean murgiltzen gairenean, hor dago Gorka —ahal bada hobe garagardo baten inguruan, belgikar erbesteratu jatorriaren

basi aurretik edota negoziaketa prozesua basi ostein?

Su-etenaren beharrezkoa da negoziaketa prozesua ofizialki martxan dagoenean. Hitz egiteko su-etenik ez da behar, eta Ezker Abertzalearekin, ETArekin eta dena

delakoarekin hitz egin behar da. ETak Madrilgo Gobernuarekin hitz egin nahi badu, EAJk ez du oztoporik jarriko. Baina isilean eta sakon egin dezatela.

Ajuria Eneko azken bilkurak zein sentsazio utzi dizu?



Juan Mari Ollora
EBBko kidea

ondorioak— animoa altxa, egoera ezberdinen alde ona ikustarazi eta baita euskarria izan dezazun bere besoa luzatzen ere.

Sentibera eta kutsu pertsonala duen profila atera zait; ez dut beste modu batera ulertzen. Beste gauza batzuk esateko hor daude curriculumak.

Euskal Herrian bizi ditugun garai ilun hauetan, argia bila dezagun laguntzen du Gorkak.

Baikor nago, Garaikoetxeak sartutako pasarte hori oso garrantzitsua baita. Ea guztiek betetzen duten akordio hori, konpromezu gogorra izango baita Madrilentzat eta alderdi estalistentzat.

MIKEL JAUREGI

BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICASEN ESCLUSIVA

2.850
PTA



Hona hemen Multipticasen Bonardi bilduma eksklusiboa adin guztietara, gustu guztietara eta aurrekontu guztietara egokitzen diren ereduak. Multipticasen bermearekin 450 saltokitan. Eta prezio ezinobean. Gastatu gabe gustagarri izateko.

**Asko Gustatzeko.
Gutxi Gastatzeko.**

ZINKUNEGI

MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Hernani, 4 - DONOSTI

H I R U M U N D U

■ HARIS SILAJDZICEK
DIMITTU EGINGO DU

BOSNIAKO lehen ministroak, Haris Silajdzicek, utzi egingo du kargua ondorengo egunotan, Federakundearen gobernu berria osatzen denean. Alija Izetbegovic presidentea izango duazken hitza, eta berak erabakiko du onartzen duen ala ez gobernuburuaren eskaria. Hasan Muratovic, kartearik gabeko ministroa orain artean, izango da seguruenik Silajdzicen oinordekoa. Bosniako federakunderako gobernu zentral sendoa nahi zuen lehen ministroak, baina bere alderdiko, SDA edo Ekimen Demokratikorako Alderdiko buruzagiak ez dira bat etorri Silajdzicekin. Adituen iritziz, baliteke lehen ministro ohiak beste alderdi bat sortzea.

■ ITALIAKO KRISIA EZ
DA AMAITU

SILVIO Berlusconi eta Gianfranco Finiren artean ez dabil batere giro onik eta baliteke laster, berriro ere, hauteskunde deialdirik izatea Italian. Berlusconi batetik eta PDSko idazkaria bestetik, Massimo D'Alema, prest azaldu dira Lamberto Diniren gobernu berriari laguntzeko. Baina Alleanza Nazionaleko Gianfranco Finik erokeriatzat jo zuen Berlusconiaren jokaera. Gogora dezagun aliatuak izan zirela azken hauteskundeetan Berlusconiaren 'Forza Italia' eta Finiren 'Allianza', garai bateko neo-faxisten alderdia azken hau. Finik dioenez, eskuin eta ezkerren arteko armistizioak bazuen zentzurik 1946.an, Bigarren Mundu gerratea amaitu zenean; ez ordea 1996.n.

■ CHE GUEVARAREN
GORPUAREN BILA

ARGENTINAKO 'Area Geofisica Eng, SA' enpresako injinariak ari dira gerrilari mitikoaren hilgorpuaren bila Boliiviako Vallegrande parajeetan. Kubako jenderik ere badabil zerregin horretan, eta batzuk zein besteek aitortu dute lantegi zaila izango dela gorpua aurkitzea. Duela gutxi jakinarazi zuen Boliviako goimilitar batek Vallegrandeko aideportuaren azpian ehortzi zituztela Che Guevara eta beste zenbait gerrilari 1967.ko urrian. Militar honek zioenez, bi eskuak moztu zituzten Guevarari eta bere aurpegiaren maskararik ere egin omen zuten. Kubako gobernuak sarritan eskatu izan du Cheren gorpua, Castroekin batera aritu baizen gerrilaria Batistaren aurkako borrokan eta industria ministro ere izan zen.



Pervomaiskaiako kaleetan lokatza, odola eta malkoak izan dituzte adiskide bakarrak Errusiako armadak errukibako erasoari ekin ezkerotik. Erasoak ez zituen alabaina gerrilari txetxeniak guztiak akabatu eta ihes egitea lortu zuten 'Otso bakartia' komandakoek. Euren eraman zituzten bahituetarik bizirik suertatu zirenak, eta berehala askatzeko intentziorik azaldu zuen Txetxeniako gerrilarien gidaritzak. Bahituen artean bada poliziarik ere, eta gerra gatibutzat jo dituzte gerrilariak. Bien bitartean, eta Pervomaiskaian errehen gisara eduki zuten gizonezko batek adierazi duenez, trintxerak egitera behartu omen zituzten bahitzaileak.



**ARAFAT JAUN
ETA JABE**


YASIR ARAFAT estatu palestinarraz mintzatu zen hilaren 20ko arrakasta eta berehala. Botuen %85 inguru bereganatu zituen 'Rais' zaharrak, gehiengo erabatekoa, Palestinako parlamentuan apenas aurkaririk ez izateko laina eta sobera. Parlamentua noiz bilduko den, hori beste kontu bat da. Martxoaren 17a aipatzen dute zenbait iturrik Palestinako Kontseilu Nazionalaren bilera eguntzat, baina bada konforme ez denik topaketa horrekin. FPLPko burua adibidez, George Habash, aspaldi honetan Damaskon bizi dena. «Nolatan itzuliko naiz ni neure aberrira nire aberkide askori bertan bizitzeko eskubidea ukatzen zaien bitartean», zioen Habashék. Europar Elkarteko begiraleek, bien bitartean, 'oro har libre eta garden'izat jo zituzten Palestinako lehen hauteskundeak. Batere gustora ez direnak berriz, Israelgo erakunde ultra-eskuindarrak, zeren Arafaten garaipena mehasu larrizat baitakusate. Hamas erakundeak ere ez du pozik ibiltzeko arrazoi handirik, boikoterako deialdiak izan duen oiartzun eskasa ikusirik. Yasir Arafatek gainditu du harresi bat, hauteskundeena, baina ez dira ttiagiagoak izango hurrengoak.

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Aljeria Gazan hasten da

HERRIALDE deskolonizatuen madarikazioa dugu. Zapalkuntza kolonial errejimenetik abiatuta -modernoak politiko eta ekonomikoki- despotismo pertsonalera, anakronikora eta disimulurik gabera. Afrikako deskolonizaziotik sortutako errejimen bakar batek ere ez du gorde sistema demokratiko baten itxuraren itxuririk leukakeen ezertxo ere. Sasierrege tribalak, labana eta urkamendia aise erabiltzen duten jauntxoak, atramendu eskaseko buruzagi militarrek..., guztiak ere hizkera sovietaizale barregarria eta ausnarketa erlijioso-milagrero-beldurgarriak elkarrekin uztartzen ahalegintzen direnak. Afrikaren heredentzia madarikatua dugu. Azken biktima, Palestina.

BOTUEN %90az irabazten diren hauteskundeak ez dira hauteskundeak: pailazokeria ankerra dira. Estatuaren indarra ez den polizia, alderdi baten armada pribatua baizik, ez da polizia: alderdi bakarrek estatuaren lanabes terroristak da. Alderdi bakarrek estatu guztiek -baita Ekialdekoek ere beren garai ilunenetan- bidea zabalik uzten diete ongi kontrolatutako erakunde 'autonomo' barregarri horiei. Bere borondate bitalizioa ezkututzen ez duen buruzagi karismatikoa ez da lider politikoa: zuzenbide jainkotarrak ezarritako tiranoa da. Hautes-kutxek, Hirugarren Munduko despotismo batean, horretarako balio dute: Jainkoak hautatua berresteko. Eta kitto.



GABRIEL A ALBIAC
Filosofoa eta idazlea

Yasir Arafaten betirako-jauntxokeria borondatea aspaldikoa baldin bada ere -PAE edo OLPren abar terroristaren gidaritzan daraman bezain aspaldikoa- Intifada izan zen, deliriumaren bidean, itzulera gabeko mugarrira jarri zuena. Nolatan bidal litezke haurrak, harriak eskuetan dituztela, armada indartsu bati aurre egin eta hiltzera? Haurren nagusiengan zera trazedenteagorik badelako: Jainko Errukiörraren borondatea. PAEren politika, Intifadaz geroztik, zuzenbide jainkorrezko politika izan da. Eta konpetentzia bakarra honako hau izan du, Jainkoaren izenean sarraskiak egiten dituztenena: Hamaseko kamikazeena.

SUAREKIN jolasean aritzea zen hori. 'Rais' bitalizioaren diktadura militarrek eskuratu berria du botuen lejitomotasuna ere, baina laster ordaindu beharko du enbidoaren prezio garestia. Aljerian FLNko militar ustelek ordaindu zuten bezalaxe. Eta horiexek izan dira PAEren boterearen eredia. Allahren gudarien eta bere anaia ustelen artean gerra bortitza, besterik ezin liteke sortu. Lehenbiziko biktimak betikoak izango dira: intelektual ilustratuak, emakumezkoak, laikoak...Korana eskuetan dutela, mailua bailitzan, PAEk eta Hamasek elkar akabatzeari ekingo diote. Palestinako esilio berria laster hasiko da. Aljeria Gazan hasi zen urtarrilaren 20an.

Gatazkak ez du baretzeko trazarik, areagotzekoa baizik

Txetxeniako gerra zabaldu eta gogortzeko zorian

Pervomaiskaia herriskan Errusiako Armada burutu zuen sarraskiak eta txetxeniarren tinkotasunak zera adieraz lezakete, ez Kremlinek ez Grozniko agintariek ez dituztela armak isilaraziko.

JOHN Le Carre idazle britainiarraren azken eleberrian, «Our game»n edo «Gure jokoa»n fikziozko aurrikuspen modura ageri zitzaiquina egitate gordina bilakatu da egun Txetxenia. Pervomaiskaia herrian Errusiako Armadak egindako sarraskia, Raduieven mutilen aursardia, «Avrasya» untziaren bahiketa Turkian... gatazka konponbidean dabilenik ez



Lurrekin berdindu zuten Grozni errusiarrek iazko erasoaldian.

dute adierazten horiek guztiek. Oso bestelako norabidean lebilke Txetxeniako auzia; gogortze, iraute, eta seguru aski zabaltze bidean. Internazionalizatzeko bidean, alegia.

Chamsudin Iuossifek, Txetxeniako atzerri harre-

manen arduradunak aurreko astean esan zuen: «700 mila gudari dauzkagu prest borrokarako, azken hatsa eman arte behar izanez gero». Txantxetan ari zenik ez zirudien. Ezetz asmatu non egin zituen adierazpenok Iuossifek? Istanbulen, Tur-

kian. Txetxeniarrak «Avrasya» untzia bahituta zeukatela artean. Boteprontoko ondorioa: Turkia eta herrialde islamdarren laguntzarik badutela txetxeniarrak. Laguntza politikoa, zehaztu zuen atzerri arduradunak. Eta militarra: «Hori errusia-

rrek eurek ematen digute *gebienbat*, zehaztu zuen luossifek.

Hor ere ez zen txantxetan ariko seguruenik, *diruagatik Yeltsinek berak ere salduko bailiguke armarik* segituan gaineratu zuen eta. Jakina, armaz hornitzeko bide bakarra ez dute Errusia izango txetxeniarrek, baina kazetari askok aipatu izan dute Kalaxnikov fusila aise saldu ohi dutela soldadu errusiarrek diru edo vodka premiarik izanez gero. Eta fusila saltzen duenak jenero handiago eta garestiagorik ere sal lezake. Armak eskuartzea eta erabiltzea ez da, nolana ere, kontu berria txetxeniarrentzat, eta hiru mende badira ia etenik gabeko borrokan ari direla.

Hiru mendeko borroka

XVIII. mendearen erdialdera tinko eutsi zioten txetxeniarrek Errusiari, Sheij Mansur buruzagi erlijiosomilitarra gidari zutela. Pertsonaia mitikoa da gaur egun Mansur 'Mendiko Herriari', Txetxenian. Hurrengo mendean, XIX.ean, txerkessiarrek, txetxeniarrek eta Dagestango herri guztiek jipoi galanta eman zioten Errusiako Armadari, 'Kaukasoko gerren' garaitan. Shamil *imam*-a 1859an errenditu zen, baina txetxeniarrek borrokan segi zuten hala ere. 1877-1879 bitartean ere izan zen gudarik ingurune horretan, Errusiak Txetxeniarri kasurik apenas egin zion arren. Ordurako ongi irabazia zuten txetxeniarrek menderagaitz fama. Iraultza Sobietarrarekin batera jaio zen, 1917an, 'Mendiko Errepublika' izeneko herri konfederakundea eta txetxeniarrek zuten nagusi-

Kremlina, betiko keriaen morroi

Salman Raduiev txetxen gerrilaburuaren irregularrak urtarrilaren 9an Dagestango Kizliaren herri-tarrak bahitu zituzteneko unetik, Budionovskeko umiliazioa bigarrenez ez pairatzeko erabakia agertu zuen Kremlinak. Nahia, ordea, ez da ahala, batez ere gaitasuna lagun ez duenean. Azkenean, Pervomaiskaiako sarraskiak motz utzi du Budionovskekoa eta, dudarik gabe, Kremlina politikoki galtzaileago suertatu da Dagestango krisi honetan erabilitako indarkeria taxugabearekin, ekainean Txernomirdinek buruturiko negoziaketarekin baino. Hilotzak hilotz, Raduiev eta haren gerrillarietako askok errusiar armadaren zepotik bizirik ihes egitea lortu dutenez, Jeltsinek ezin dio errusiar



MIKEL ARAMENDI
Kazetaria

iritzi publikoari 'txetxen gaizkileen suntsimendua' ere saldu. Lehendakari-tzarako hauteskundeetan urtea ezin okerrago hasi.

Harritzekoa litzateke, haatik, Jeltsinen kamarilak -edota ondoren datorrenak; alde handirik ez da antzematen honetan errusiar politiko nagusien artean-begien bistako

leziokoz zuzen eta segituan ikastea. Historian zehar errusiar agintari gorenengan atabikoa izan den indarrarekiko keria ('maiteko ez zaituztenez, izan daitezela zure beldur'), sendo errotu da Kremlinan 93.ko urriko gertakariez geroztik... baldin eta inoiz desagertu bazen. Arazo politikoak indarrez erabakitzeko keria zahar horren agerkaria besterik ez da, funtsean, duela 13 hilabete desarrazoiz Txetxenian hasitako gerra.

Seguruenik, luze joango da errusiar agintariak ikas dezaten indarra, berez eta soilik, xede politiko guztiak lortzeko ez dela aski. Aspaldiegitik datorkien tradizioaren morroi dira. Baina Txetxeniarri 'Vietnam' sorberri hori ikastegi paregabea izango dute, alafede.

goa erakunde horretan.

Boltxebikeen erasoaren behala ailegatu zen hara ere: 1922an Txetxenian 'Mendiko Errepublika' tik kanpo utzi zuten eta 1934an, Txetxenian -Inguxetia lurralde autonomoa osatu. Bi urte beranduago, 1936an, Errusiar federakundeko errepublika autonomo statusa eskuratu zuten.

Stalinen genozidioa

LENINEN garaia ez ziren baketsuak izan Txetxenian;

are gutxiago Stalinenak. Bigarren Mundu Gerran Wehrmachtekin, Alemaniako Armadak 1942an menperatu zuen Txetxenian bolada labur batez. Naziak ahaleginik egin zuten txetxeniarrek Sobiet Batasunaren aurka jartzeko, aparteko emaitzarik gabe beti ere. Aldiz, adore eta balentria handiz aritu ziren Armada Gorriko soldadu txetxeniarrek alemanen aurka. Stalinen ordaina: genozidioa.

1944ko otsailaren 23an NKVD edo polizia politiko-

ko 100.000 lagun inguruk deportazio bidean jarri zituzten txetxeniarrek eta inguxak. Astebete pasa baino lehen 478.479 giza-emakume eta haur Kazajstan eta Uzbekistan aldera eramane zituzten 180 konboitan. Biztanleriaren erdia baino gehixeago.

Errepublika izakera ere kendu zion Stalinek Txetxenian-Inguxetiarri 1946an, eta esan beharrik ez oso bizimodu gogorra pairatu zutela erbesteratuek. Bien bitartean, Txetxenian, *teip*-ak edo herri-batzarrak, antzinako erakuntza sistema, berrindartu egin ziren. Hamaita urte pasata, Txetxenian-Inguxia errepublika dekretuz berpiztu zuen Mos-

XVIII. mendearen erdialdera tinko eutsi zioten txetxeniarrek Errusiari, Sheij Mansur buruzagia gidari zutela

kuk eta milaka txetxeniarrak itzuli ziren sorterrira. Ordu-rako eslaviarren esku ziren administrazioeko kargu nagusienak, langabezia edo halamoduzko enpleguak berriz endemikoak, emigrazioa askoren irtenbide bakarra eta ustelkeria eguneroko ogia.

Dudaiev nagusi

PERESTROIKAREN enbatarik gorabehera handirik gabe eutsi zioten Txetxeniako agintari komunistek, ez ordea 1991ko estatu kolpe saiakeraren ondorioei. Duku Zaavgaievi, Txetxenia-Inguxiako Sobiet Gorenaren buruari, kolpean partehartzerik izan zuela egotzi zioten. Dimititu egin behar izan zuen. Eta orduan hasi ginen sarri entzuten armada sobietarreko jeneral baten izena: Djokhar Dudaievena. Bere alderdiak, Txetxeniarraren Kongresu Nazionalak, berehala eskuratu zuen boterea. Beldurrari etekinik nola atera bazekien Dudaievek, eta berriro ere deportazioaren mamua zertorela zabaldu zuen.

Mosku aldean, bien bitartean, ezer gutxi zekiten Groznin gertatzen ari zenaz. Dudaievi babesa eman zioten Errusiako agintariek eta 1991ko urrian presidente



Txetxeniako gerrak zenbat hildako eragin dituen nekez jakingo da zehazki, baina gutxienik 50 mila lagun hil bide dira, horietarik gehienak herritar zibilak.

izendatu ere. Azaroan legez kanpokotzat jo zuen Kremlinek Dudaieven izendapena, emerjentzia egoera aldarrikatu eta tropak bidali zituen Groznira. Segituan bentsitu zituzten txetxeniarrak. Giroak, bai ekonomi-

koak bai politikoak, txarrera egin zuen hurrengo hiru urteetan. Jatorri errusiarreko herritar gehienek alde egin zuten, Kremlinek Dudaieven aurkako mugimenduak suspertu zituen, eta azkenik, eskuhartze militarri ekin

zion. Le Carreren «Our game» eleberria hortxe amaitu zen. Oraingo giroak, berriz, Coppolaren «Apocalypse now» filmearen tankera hartu du.

XABIER ARANBURU



EGUERDIETAN ERE IREKITA

IZAGIRRE

SAGARDOTEGIA

Aingeru Zaindaria gaina
Atotxa - Erreka
AÑORGA
(943) 36 14 70



OTATZA

Nagusia: Jose Antonio Iparragirre Mendiaraz
Helbidea: Otatza baserria
Telefonoa: 80 17 57

Denbora: Txotx garaia, urtarrilaren 20tik apiril bukaerara. Urtean zehar irekita aste burutan.
Janaria: Sagardotegiak bezela norberak ekarria.
Lekua: 100 lagun, zutik nahiz eserita.

Xanti Bengoa, CCOOren idazkari nagusia EAEn

«Kongresu aurreko eztabaida sosegatua izan da Euskadin»

Seigarren Kongresua izan du oraintsu CCOOek eta ez dira bare bareak izan prexixoki Biltzar barruko eta horren aurreko eztabaidak. Hortzak ongi zorrozuta jo dute Madrila korronte guztiek.

Hauteskunde sindikalen emaitzak ikusirik, CCOO duela lau urte baino sendo edo abulago dago egun Hego Euskal Herrian?

Hasteko, kontuan izan behar dugu hauteskunde legea aldatu egin dela, eta momentu honetan ordezkari edo delegatu kopuru mugikorra dugula. Zer adierazten digu horrek? Enpresaren bat



Lan esparru autonomikoa eta autarkikoa bereizi egin behar direla dio Bengoak. (A.: M. Ramirez).

ixtean hor zeuden delegatuak ez direla ageri jada zenbaketan. Beraz, sindikatu guztiok dugu gaur egun orain lau urte baino ordezkari gutxiago.

Edonola ere, bada datu objektibo bat: bi dezima galdu ditugu ordezkari kopu-

ruan, eta oso datu atsekabea da hori guretzat. Hala eta guztiz ere, bigarren indar sindikala gara bai Euskal Autonomi Elkarteetan bai Nafarroan. Eta 1982ko hauteskunde sindikalez geroztik ez geunden horren posizio onean.

VI. Kongresu Konfederala izan berria du CCOO. Barne korronteen -Gutierrezen aldekoak, Morenozaleak, Ezker Sindikalekoak- arteko tirabirak zenbaterainokoak izan dira Hego Euskal Herrian?

“ Iheska gabilzkio manikeismo horri, sindikalgintza abertzale eta estatalistaren arteko enfrontamenduari


Kongresu aurreko prozesua Euskadin sosegatua izan dela esango nuke nik. Eztabaida bizia izan da, eta apustu garbia egin dute ordezkari gehienek Kontseilu Konfederalak onetsitako tesi maioritarioen alde. Hortxe aztertzen dira lan, enplegu, legeria... Alor guztietan, gizarte osoan, izan diren aldaketak.

Eta hortxe daude baita ere gizaldi berriari ekiteko estrategien zirriborroak: enplegu sorrera eta kalitatea, lanorduen murrizketa, ordu estrak kentzea, prekarietatearen aurkako borroka, hezkuntza profesionala bultzatzea... Eta honekin batera, babes sozialerako sistema publikoaren defentsa.

Enplegua aipatu berria dugunez, zer deritzozu Felipe Gonzalezek duela gutxi egindako proposamenari, hau da, lanorduekin batera soldatak murrizteari?

Lanordu gutxiago, horrekin konforme gara, aurrerakuntza tekniko-zientifikoei esker giza-esfortzu tikiagoa aski baita lehen bezainbat, edo gehiago, produzitzeko. Honenbestez, geuk ere uste dugu lanorduen murrizketa zorrotza egin behar dela enplegu berriak sortu ahal izateko.

Gutxiago irabaztearena? Hori diskutigarriagoa da, zeren eta azken urteotan



Lanorduekin murriztearekin konforme da CCOOko idazkaria; ez ordea soldatak murriztearekin.

produktibitatearen hazkundea ia erabat enpresarien irabaziek jan dute, inbertsiora bideratu beharrean. 1992-95 bitartean, Euskadin, benetako inbertsio kopurua negatiboa izan da. Dirulaguntza publikoak inbertsioa bera baino handiagoak izan dira. Beraz, eta hemen daukagun soldata-egituraketa ikusirik, ezin liteke ordu murrizketa-soldata murrizketaz hitz egin. Salbuespenen bat izango da, baina

salbuespen modura aztertu beharrekoa.

Bestalde, sarri samar entzun abal izan da aspaldian sindikatuok erakunde korporatibistak biburtu zaretela. Alegia, enplegu tinkoa dutenen defenditzaileak,

baina langabetuak edo lan prekarioa dutenak bazterrera utziz.

Kritika hori ez dator bat errealitatearekin, eta ñabardura batzuk eranstea komeniko litzateke. Hasteko, edozein giza-erakundetan bezala, eragin handiagoa

“ Bi dezima galdu ditugu ordezkari kopuruan, eta oso datu atsekabea da hori guretzat”

«Azken urteotan produktibitatearen hazkundera ia erabat enpresarien irabaziek jan dute, inbertsiora bideratu beharrean»

dute partehartze handiagoa dutenak. Geure sindikatuan, esaterako, partaide gehienak soldatapeko langileak izaki, normala da hauen esku izatea ardura eta eragin zabalena.

Baina beste ikuspegi batetik begiratuta, gogoan izatekoa da azken urteotako bi greba orokorrak elkartasunezkoak izan direla. Hau da, langabetu, jubilatuta eta enplegu ez-egonkorra dutenenganako elkartasuna aldarrikatzeko grebaldiak. Horretaz aparte, azken urteotan arreta berezia eskaini diogu langabeziaren arazoari. Hor daude langabeztuentzako aholkularitzak, hezkuntza alorra... Bi hitzetan, lanik ez duten langileen arazoa lehen mailan dugu CCOOen.


ELA eta LAB elkarlanean ari dira zenbait alorretan. Eta askoren iritziz, bi esparru nabarmen ageri dira Hego Euskarriko sindikalizazioan: abertzaleak batetik (ELA-LAB), estatu mailakoak bestetik (CCOO-UGT).

Izurritea bailitzan ari gaitzaizkio iheska manikeismo horri, abertzale-estatalista sasi-enfrentamenduari. Estatu plurinazional batean bizi gara; Gernikako Estatuak eskuduntza zabalak damaizkio Jaurlaritzari... Geuk ere bat egiten dugu

CCOOen kongresuko txosten orokorraz

Ez da lantegi erraza CCOOen Kongresu Konfederalaz aritu beharra, baina lerro kritiko batzuk eskainiko dizkiot Antonio Gutierrezek biltzarrerako eratu duen txosten orokorrari. Esan dezadan, lehenbizi, autokritikari oso tarte eskasa egiten diola txostenak, azken lau urteotako barne jesticioari dagokionez. Eta eraso oso larriak egin dizkigute langileoi tarte honetan, baita atzerantz egin ere geure bizi eta lan kalitateak. Horren lekuko dira desneplegu subsidiaren murrizketak edo lan erreforma

Korporatibismoaren arriskua ere hortxe dago. CCOO langileen arteko elkartasuna bultzatu beharko lukeela aipatzen den bitartean, horren ondorioak ez dira Inondik ere ageri. H erriar asko eta asko pobrezia eta bazterketa sozialaren bidetik dabilzala ikusirik, CCOO ahalegin handiagoa egin beharko luke



JESUS UZKUDUN
Eukadiko CCOOko Batzorde Konfederalkoa

sektore horiek sustatu eta biltzeko. Mugimendu ekologistarekin harremanak sendotzea positiboa izan da, eta esperientzia hori marjinazio sozialaren aurkako borrokara ere eraman beharko litzateke, korporatibismoan jauzi nahi ez badugu.

Bitxikeria batzuk aipatzeko modukoak dira CCOOren kongresurako txostena dela eta. 'Espainia', 'Nazioaren gobernu', 'CCOO eta UGT dira sindikatu errepresentatibo bakarrak'... Nazionalismo

espainolaren defentsa eta Estatu espainiarreko nazio-aniztasunari uko egitea, bi jarrerok garbiro ageri zaizkigu txostenean. Hego Euskadin ELAK eta LABek, biek batera, ordezkariak sindikalaren % 55 daukate. UGTk eta CCOOk, berriz, biok batera, % 34 besterik ez.

Errealitate honi uko egiteak sektarismo itsua adierazten du, eta oztopoa besterik ez da Euskadin ekimen bateratua lortzeko. Horrekin batera datoz zenbait borroka motaren gaitzespenak: piketeak, enpresarien erretentzio edo bahiketak, eta abar. Txosten orokorrean ageri den gaitzespen hau, huts egite larria ezezik errepresioari txalo egitea ere bada. Greba orokorra gaitzestea, hori besterik ez zaio falta txostenari. Perla hauek eta beste batzuk medio, esan beharrik ez CCOOren Euskadiko Ezker Sindikalaren botorik ez duela jasoko Gutierrezen txostenak.

Estatutuarekin, eta oso osorik betetzea eskatzen dugu. Estatutuaren eskutik, eta agente sozialengandik dator lan harremanetarako esparru autonomikoa. Negoziazio kolektiboaren, hitzarmen interkonfederalen, Jaurlaritzaren kompetentzien (industria, osasuna...) eskutik ari da osatzen bertako esparru hori.

Sindikatu abertzaleekin dugun eztabaida zera da, esparru autonomikoa 'esparru autarkikoa' izan ote litekeen. Erreferentziarik

gabeko sindikalizazioa behar al dugu, estatu espainiarreko eta Europako gainerako sindikatuarekin harremanik gabea? Guk ezetz diogu. Lan eta sozial alorreko legeriak; funtsezko harreman ekonomikoak... horiek guztiak geroz eta gehiago Estatu espainiar mailan erabakitzen dira, baita European ere.

UGT eta CCOO sindikatu bakarra, bateratua, izateko aukerarik ikusten al duzu epe labur-ertainera?

Futurologia egiterik ez dut

atsegin, baina UGT eta CCOOren arteko ekimen bateratua positiboa da langileentzat. Politika ekonomiko liberalei Espainiako historia modernoan eman zaizkien erantzun zorrotzenak batasun honen eskutik etorri dira. Eta kongresu honen ekimen bateratua sendotzearen aldeko apustua dakar. Ez UGTekin soilik, baizik eta estatu osoan diren klase-sindikatu demokratikoen guztiak.

XABIER ARANBURU

Urtarrileko azken igande honetako Donostiako krossaren historiari erreparatu diogu

ZALEEN ERROMERIA DONOSTIAKO KROSEAN

Urtarrileko azken igandea egun seinalatua da aspalditik kirol egutegian. Neguko jazkeraz, badaezpada, ogitartekoa hartu eta etxetik garaiz irten Lasarteko zalditegira joateko, ezin hutsegingo dugu urteroko zitara.



Jose Migel Maizek 1968an irabazi zuen Lasarteko Krosa.

BERROGEITA batgarren edizioa izango da aurten-goia, eta oraindik ere milaka lagunek goizpararako plana erabakita izango dute dagoeneko. Kenyar onenen falta edota zenbait atletaren ordainsaria pagatu ezinagatik partaidetzaren sona gutxitzeak bost axola! Aurten ere Lasarteko krosa bertatik

ikusi eta gozatzeraz joan beharra dago, kros munduan aditua izan ala ez, tradizio kontua baita.

Nazioarteko maila

EUSKAL Herrian zehar korrikaldi mota honek jendearengan zuen erakarmen

eta arrakastaren oihartzuna zabaldu eta 1955. urtean Zubietako zalditokian Nazioetako Kros ospetsua antolatzeko ohorea izan zuen federazioak. Urte hartan Gordon Piri atleta britainiar handiak parte hartzerik izan ez zuela eta, hurrengo urtean

ere Lasarten beste proba bat korritzeko gogoia erakutsi zuen; eta horrela, belar eta lokatz gaineko korrika saio hauek arautzen aitzindari ziren ingelesak tarteko, 1956.ean jokatu zen lehen edizioa.

1956ko hamabi kilome-

■ 1958ko edizioan, Emil Zatopek-ek irabazi zuen hartan, 16.000tik gora ikusle bildu ziren Zubietako zalditokian

troko lasterketa hartarako (gaur egun 10 km ditu zirkuituak), britainiarrek euren ordezkari onenak ekartzea agindu zuten, eta sailkapenean ingelesak izan ziren lehendabiziko 4 postutan eta Irizar bosgarrena. Sasoi hartan ez zen publizitate ez eta iragarki askorik behar jendea erakartzeko: izan ere, 1958.eko edizioan Emil Zatopek «lokomotora txekiarrak» irabazi zuen hartan 16.000tik gora ikusle bildu ziren Zubietako zalditokian. Antolatzaileen seriotasuna eta partaideekiko jendearen goxotasunak munduko kroslaririk onenak ekarraziti dituzten Lasartera; irabazleek zerrendan ez da seguruenerik garaian garaiko munduko txapelunik faltako: Mamo Wolde, Gammoudi, Bedford, Carlos Lopes eta orainsuago beste horrenbeste izen handi, hala-nola Kadir, Bulti, Kipkoech, Ngugi, Fita Bayesa, Gebresilassie edota Paulo Guerra azken garailea.

Maiz, irabazle euskaldun bakarra

1960-KO hamarkadan, hantzik korritzen zuen etiopiar batek beste guztien arrastoak atzean utziko zituen. Apala bezain azkarra, Mamo Woldek aparteko erraztasuna zuen, erritmoa nahi zuenean aldatu eta are-
roa atzean uzteko; 63, 64 eta

J. M. Maiz: «Irabaztea izugarria izan zen»

Nola gogoratzen duzu krosaren garaipen eguna?


Kanpotik zetozen korrikalarien aldean abantaila txikia izaten genuen etxekoek. Haiek prestaketak martxoaren amaieran jokatzeko ziren munduko txapelketarako bideratzen zituzten bitartean, geuretzat Lasartekoa baino handiagorik ez zen. Aurreko urtean, lehendabiziko kilometroan zapatilla bat galdu nuen eta hala ere Mamo Wolderen atzetik bigarren egin. Zerbait gehixeago merezi izan nuela eta hurrengo urterako lanetik orduak kenduta oso ondo pres-tatu nintzen. Hogeita zazpi urte neuzkan artean eta desio nuen bakarra eguraldia zakartzea zen lokatzetan oso arin ibiltzen nintzen eta.

Nolakoa izan zen lasterketa?

Lasterketa egunean zirkuitua oso pisua zegoen eta oraindik gogoan dut azken kilometroan Mariano Haro eta bion arteko borroka. Lehen erreka bat pasatu beharra zen eta Harok heldu egin zidan ni

atzean utzi nahian, hala ere errekupeatu eta azken esprinean nagusitu nintzaion. Urrezko erloju dotorea eman zidaten eta lehenengo espainolarentzat iragarrita zegoen motozikleta ere niri zegokidan, baina kendu egin zidaten. Hara! nonbait ez ninduten espainoltzat hartu. Gure ezjakinean, baserri girokoak izaki, lana besterik ez zen alboan eta gurdibidetan ahal ze-

nean gora eta behera jarduten genuen entrenamendutan. Begira! antolakuntzak sarrera batzuk ematen zituen partaideentzat; nik lagunartean banatu eta lasterketa egunean hantxe azaldu nintzen korritzera nire poltsa eta guzti. Atean zegoen txapelgorriak ez zidan sartzen uzten eta azkenean Imaz, Uliakoen delegatuari esker sartu eta korritu ahal izan nuen.



67ko edizioetan nagusitu zen eta bera da, hain zuzen, balentria hori lortu duen bakarra Lasarten.

Euskal herritarren artean, Arizmendi eta Aguilar besteak beste puntakoen artean ibili baziren ere, Jose Migel Maizek 68ko krosa ez du sekula ahaztuko. Zirkuitua lokatzez beteta egoteak mesede ikaragarria egin zion egun hartan korrikalari

aiarrari eta amaieran, buruz buru, Mariano Haro atleta ezagunarekin borrokatu behar izan zuen sekula euskaldun batek lortu ez zuen txapela janzteko.

Balio handiko erloju bat

Erloju bat izan zen Jose Migel Maiz korrikalari aiarraren saria irabazi zuenean. (Argazkia: Alberto Elozegi).

■ Mamo Wolde 63, 64 eta 67ko edizioetan nagusitu zen; eta bera da, hain zuzen ere, balentria hori lortu duen bakarra Zubietan

irabazi zuen urte hartan Jose Migel Maizek. Lehen aldiz kobratu zuenak, berriz, Mimum frantziarrak, 5.000 pezeta jaso zituen Lasarten parte hartu eta irabazteagatik. Egun, ordea, oso bestela daude kontuak kros munduan. Alde batetik, lasterketen artean konpetentzia itzela dago, berez karteldegia ugaltu delako (garai batean inguruotan Lasartekoa besterik ez baitzen) eta bestetik kros munduko izarrak gureganatzeko posibilitateak geroz eta murrizagoak direlako.

Diruaren hotsa

HAMAHIRU milioi pezetako (520.000 libera inguru) aurrekontuarekin ezin exijituko diogu probaren antolatzailerik munduko onenak ekartzea, guztiz ezinezkoa baita. Esaterako, Gebresilassie etiopiarrek partehartzeagatik bakarrik lau milioiko ordaina eskatzen du eta bajuxeago etorrita ere, Khalid Skah, Paulo Guerra edo Martin Fiz berak ere milioitiko gora kostatzen dute.

Modan dauden kenyarrak fitxatzeko bada beste arazo nagusi bat; izan ere, asteburu horretan bertan euren herriko txapelketa militarrek jokatzeko dira eta gehienak uniforme gabeko militarrek direnez ezin diote uko egin konpromezuari.

Kontuak kontu, aurtent-



1956 ezkerrean jokatzeko lasterketa. (Argazkia: Edurne Koch).

gorako ere ez da txantxetako Zubietako zalditokiko zelaian korrika ikusi ahal izango den korrikalari handi andana. Gizonezkoetan, Khalid Skah munduko kros txpeldun ohia, Martin Fiz edo Kirui kenyarra aipatzearekin bakarrik (azken orduan egiazta daitezkeen

beste zenbaitekin batera), lasterketaren goi-maila segurtaturik dago.

Agian emakumezkoen atalean norvegiar gogoa oraindik ere ikusgarriagoa prestatu digute antolatzailerik; Derartu Tulu -bostehun mila pezeta korrika egiteagatik- munduko kros

txapelduna eta Euskal Herriaren jokatu berri direnetan irabazleak beste atleta handi bat izango du aurrez aurre lehian, 10.000 metroan Goteborgen urrezko domina irabazi zuen Fernanda Ribeiro portugaldarra.

MARTIN AGIRRE

Edertasun lehiaketetako miss-en munduan murgildua dago modelo agentzien lana

AGENTZIEN DESFILEAN


Nor ederrago, nor politago hautatzea hainbat herrialde eta eremutan jokatzeko den 'lehia' da. Euskal herrialde batzuetan ere bada edertasunaren erreginarik. Lehiaketa hauetara iritsi aurreko bidean murgildu gara, modelo agentzien pasabideetan barrena.

MODELO agentziek aurkeztu ohi dituzte edertasun lehiaketetara miss titulua irabazteko asmotan joaten diren hautagaiak. Isabel Muela «Miss Euskadi» lehiaketa koordinatzen duen ordezkariak zehaztu duenez, hala ere, «casting libreko neskek ere sartzen dira, prestatuta baldin badaude». Hauxe izan da, hain zuzen ere, Bizkaiko Miss izendatu duten Olatz Perezen kasua. Modelo etheen bidezkoa da nagusiki, dena den, lehiaketa hauetako funtzionamendua.

Agentziak modelo eta bezeroen arteko bitartekari izaten dira. Modeloaren lan arloaz arduratzen dira, beraz, modeloek ez dute ordaintzen jasotzen duten prestaketagatik —modelo eskoletan ez bezala—, baina kontratuak egiteko orduan gauzatzen da agentzien

etekina, portzentaia jasotzen baitute. Nola egiten dute, ordea, neska gazteen aukeraketa etxe hauek, edertasun lehiaketetara aurkezteko?

Eli Anduiza izen bereko Bilboko agentziako arduradunaren arabera, «guk ez ditugu aukeratzen aurkeztu direnak. Guri Isabel Muelak deitzen digu castinga dagoela esanez eta guk modelo guztiei esaten diegu nabi duena joan dadin». Aholkuak ematen dituztela onartzen badu ere, erabakia pertsonala izaten da, modeloarena. Iñigo Olasagasti, First Models Donostiako agentziako arduradunak edertasun lehiaketetara aurkezteko aurre aukeraketa egitean agentzian duen jendeari erreparatzen dio batez ere, «baita bertatik igaro direnei ere. Baina kaleko edo dantzalekuetako



Donostiako First Models agentziako arduraduna da Iñigo Olasagasti. (Argazkia: Alberto Elozegi).

jendeari ere galdetzen diot».

Bilboko Lanka agentziako Kasilda Barcinaren arabera, ordea, modelo bakoitzak arlo desberdinetarako balio du eta «horren arabera bi-

deratzen ditugu: batzuk lehiaketetara eta beste batzuk pasalekura». Lehiaketetan parte hartzeko aukeratuak diren gazteak, baina, ekipo osatua izaten dute inguruan:



Bilboko Lanka modelo agentziako arduraduna da Kasilda Barcina. (Argazkia: Marisol Ramirez).

makilatzaileak, estilistak, ile-apaintzaileak, arropen agenteak, janzen laguntzen dutenak, antolatzaileak...

Lehiaketan aurretik, nolani ere, epe luzeko lanean jarduten dute modeloek eta agentzietan hauen prestaketa zuzentzen dutenek. Eli Anduizaren etxean

ibiltzen, pausoak eta biraketak menderatzen, mugimenduen armonia lortzen, produktuak erakutsi eta saltzen ikasten ei dute; *«denentzat ikasketa berdina da, denek denetik egiten dute»*. Takoidun zapatak eta nola zapaltzen duten ikusteko gona bat dira agentzian era-

biltzen duten materiala. Bestalde, ileapaindegi bat modeloen estilismoaz eta adatsaren zainketaz arduratu ohi da. Apainketarako materiala, oster, norberak ekartzen du.

Bilboko Lanka agentziako modelo eskolan egunero bi orduko ikastaroak egiten

« Irabazi ostean kontratuak igo egiten dira eta hor komisioa irabazten dugunez, modeloa promozionatzen saiatzen gara »

K. BARCINA

dituzte eta hiru hilabeteko iraupena dute. *«Gorputz-espresioa, interpretazioa, keinuen kontrola, takoiekin ibiltzen, arropa mota guztien interpretazioa...»* dituzte ikasgai modeloek. As-tean behin ere azalaren zainketa eta makilajea moduko gaiak ikasten dituzte. 15.000 pezetako matrikula ordaintzen dute Lankan, hilabeteko beste horrenbesteko kuotarekin; guztira, 60.000 pezeta (2.400 libera inguru).

Modelo eskolak

FIRST Models agentzian ezberdindu egiten dituzte maniki eta publizitate modeloentzako ikastaroak. Lehenengoen argazkigintza egiten dute, eta bigarrenen pasalekua. Horretaz gain, arestian aipatu agentzietan moduan, gorputz espresioa, makilajea, ileapaindegia, modaren teoria... Honetan ere 15.000 pezetakoa ordaintzen dute matrikula eta 16.000, aldiz, hilabetetokoa. Materiala prezio hauen barruan sartzen bada ere, ikastaroetara aurkeztzen diren gazte orok erosi behar dituzte beren kontura makilajerako tresnak, takoidun zapatak eta argazkientzako liburua, zeina aurkezpenetarako tresna ezinbesteko bihurtzen den modeloentzat. Gasteizko Txairoki agentziak ere modelo eskola zer-



Gasteizko Txairoki modelo etxeko Jose Carlos Garcia. (Arg.: Joseba Olalde).

bitzua eskaintzen du, hiru eta bost hilabeteko ikastaro laburretan, baita bederatzi hilabetekoetan ere. Edonork ikas dezake bertan hilabetean 10.000 pezetako kuota ordainduz gero.

Agentzien etekinak

AGENTZIAN sartzeko, ordea, ezaugarri bereziak eskatzen dituztela esan digu Jose Carlos Garcia bertako arduradunak: «*Pasalekuko nesken kasuan 1,73 metroko gutxieneko garaiera eta mutilei dagokienez, aldiz, 1,80. Dena den, publizitate arloan lan egiteko altuerak ez du garrantzirik, gorputzeko atal bakanak eska baitaitezke*». Modeloekin ordezkariak kontratuak egiten dituzte eta ondoren agentzia lanak bilatzen ahalegintzen da.

Edertasun lehiaketetan eta, oro har, modelotzat egiten dituzten lanetan gazte hauen ordezkariak burutzen aritzen diren etxeek ez dute, esaterako, «Miss Euskadi» sariak eskaintzen dituen 1.500.000 (60.000 pezeta) pezetatik sosik jasotzen. Nondik dator, orduan, etxe hauen etekina eta hautagaiak aurkeztu eta prestatu izanaren ordaina? Kontratuaren % 20 inguruko irabaziak izaten dituzte agentziek.

Eli Anduizaren kasuan, «*batzuetan modeloari eta bestetan bezeroari kobratzen diegu. Batzuetan komisioa barne duen prezioa eskaintzen diegu bezeroari, eta orduan modeloari kobratzen diegu portzentaia. Bestalde, agentziaren portzentaia aparte ordaintzen bada, bezeroari kobratzen*

diegu». Lankako Kasilda Barcinak ere beraiek ordezkariak modelo baten sariketara irabazi ondorengo

kontratuak azpimarratzen ditu: «*Irabazi ostean kontratuak igo egiten dira normalean, eta hor komisioa irabazten dugunez, modelo promovionatzen saiatzen gara, nazioarte mailan ezagutarazten*». First Models-eko Iñigo Olasagastik esandakoaren arabera, 15.000 pezeta irabazi ohi ditu modelo bakoitzak desfileko eta 25.000 pezeta argazki saioko. Munduan zehar han hemenka estatueta aukeratzaren diren miss berrien ordezkari, ordea, nazioarteko agentziak bilakatzeko dira eskuarki; beste maila bateko modelo agentzietara igarotzea baita, era berean, edertasun lehiaketetako irabazleen sari ez ekonomikoa.

**AINHUA AZPIROZ
ARANTXA ERASUN**



oskorri & Maskarada "landalan"

ARGIA-ren laguntzaz

TOLOSA

TEATRO LEIDOR

Urtarrilaren 26an, ostiralarekin Gaueko 10,30etan


«**Agentziako jendeari erreparatzen diot lehiakideak aukeratzeko orduan**»
IÑIGO OLASAGASTI

Pello Salabururen programa aztertu dugu

IRAGARRITAKO HAUTESKUNDEAK

Errektorearen izendapenak ezin izan ditu isilarazi EHUK bizi dituen une latzak. Ikasle, sindikatu eta irakasle kaleratuen auziak eragindako protestak eta hauen kontra Protecsa-k izandako jarrerak errektore berriaren programari itzal egin diote.

EUSKAL Herriko Unibertsitatean egin diren Errektoretza talderako azken hauteskundeak istilu eta protesten artean burutu dira. Juan Jose Goirienak utzi duen errektore postua Pello Salabururen esku gelditu da prozesu istilutsua amaituta, joan den



Pello Salaburu dugu EHUKo errektore berria. (Argazkia: Alberto Elozegi).

HELBURU NAGUSIAK

KANPUSAK

EUSKARA

GOBERNU BATZORDEAREN OSAKETA

estetik aurrera. Asko kostata hartutako erabakia izan bada ere, «kezka, beldurra eta ilusioa» aipatu zituen izendapen egunean. «Unibertsitatea handia baita».

Hala ere, ez dira gorabeherak falta izan hauteskunde garai hauetan. Protecsa segurtasun enpresak ikasleen protestak isilarazteko izandako jarrerak komunikabideen arreta eragin du eta honekin batera sindikatuen eskakizunak eta irakasle kaleratuen auziak Errektoretza talde berriaren estreinuko protagonistak izan dira.

Datorren agintaldirako egindako programaren arabera, Euskal Herriko unibertsitatea «publikoa, kalitatuzkoa, elebiduna, deszentralizatua, berritzailea, eta aurrerakoia, irekia eta konpetitiboa» izan behar du. Gobernu talde berria lanean

EHuko Gobernu berriaren programa eta kideak

- Publikotasuna bultzatzea, aukera berdintasuna indartuz.
- Kalitatezko unibertsitateak lortzea, Irakaskuntza, Ikerketa eta Gestio lanak hobetuz. Komunitate unibertsitarioaren parte hartzea bultzatzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren presentzia indartu eta bultzatzeak unibertsitate elebiduna du xede. Bitarteko eta unibertsitatetik kanpo dauden erakundeekin kolaborazioa jo.
- Deszentralizazioak kanpus, fakultate eta departamentuen arteko beharrak eta aldaketak asetzea ditu oinarri. Bitarteko ekonomikoak eta zerbitzu berrien presentzia indartu nahi da. Erabaki guneen gertutasuna beharrezkoa dute.
- Nafarroako eta Iparraldeko Goi mailako Hezkuntz erakundeekin lanean jardutea.
- Europa eta munduko beste unibertsitate batzuekin harremanak izatea konpetibitatea eta kanpo irudia hobetzeko asmoz.

- Ikasketa berrien eskaintza: Humanistika, Teknologia, Giza Zientzien eta Ikasketa Berrien (Esperimentalak) inguruan.
- Kanpusen egitura hobekuntzak eta hiri proiektuak bultzatu.
- Kultura eta Kirol zerbitzuak indartu.
- Inguruko erakundeekin harremanak indartu (Administrazio Publikoa, gune ekonomiko eta teknologikoak).

- Euskararen presentzia unibertsitateko harreman guztietan indartzea.
- Hizkuntz Plangintza berria. Lau urtetara ikasgaien % 65 eta 8 urtetara ikasgaien %100 Hizkuntz ereduaren eguneratzea.
- Doktorego ikasketetarako irakasleen prestaketa.
- Urtero euskarazko 10 testu liburu argitaratzea gutxienez.
- Irakaslegoa euskalduntzeko liberazio bereziak aurreikusten badira ere, ez da hizkuntz profilen beharra aurreikusten.
- Administrazioko funtzionarietzat hizkuntz profilen betebeharra.
- Kanpus bakoitzean Euskara Batzordeko koordinatzaileak eremu horretako hizkuntz politikaren ardura hartuko du. Koordinazio lana indartzea.

- Errektorea: Pello Salaburu Etxeberria.
- Arabako Kanpuseko errektoreordea: Francisco Palacios Gamba.
- Bizkaiko Kanpuseko errektoreordea: Juan Antonio Rivas.
- Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordea: Jose Luis de la Cuesta.
- Irakaslego eta Ordenazio Akademikorako errektoreordea: Luis Casis Saenz.
- Euskara errektoreordea: Miren Azkarate Villar.
- Ikasleen errektoreordea: Jose Maria Zumalabe.
- Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetarako errektoreordea: Maitena Etxebarria Arostegi.
- Gai Ekonomikotarako errektoreordea: Jon Barrutia Guenaga.
- Irakaskuntza Planifikaziorako errektoreordea: Pilar Elgoibar Larranaga.
- Idazkari Nagusia: Alberto Lopez Basaguren.

aritzeko prest agertu bada ere, ezin dira ahortzi EHUK bizi dituen une latzak, hauteskunde prozesuan bertan agerian gelditu direnak.

Goirienaren gobernu taldean izan diren sei kiderekin lan egingo du Errektore berriak. Euskara Errektoreordetzan Miren Azkarate euskaltzain osoa utzi du. Atal honi dagokionez, Euskara Plangintza berria, irakaslegoaren prestaketa eta derrigorrezko ikasgaien euskalduntzea dira xede nagusiak. Ildo honetatik, lau urtera derrigorrezko ikasgaien % 65 eta 8 urtera ikasgaien % 100 euskaraz izatea lortu nahi da. Hala ere, hizkuntz profilen eskakizunak

derrigorrezkoak soilik funtzionarietzat izango dira, eta irakasleen elebidutasun izaera indartzeko aukerak eskainiko badira ere, irizpide akademikoak lehenetsuak dira plangintzaren arabera.

Deszentralizazioa izango da Salaburuk aurre egin behar dion erronkarik handienetakoa. Izan ere, Goirienak bere Gobernu programan aurrikusitako gai honek oraindik erabat gauzatu gabe segitzen du. Goirienak onartu izan duenez, «unibertsitateak zituen arazo larrienak bideratzen berak uste baino denbora gehiago eman» du. Azkenean, deszentralizazioarena

EHUren gaintitu gabeko gaia izaten segitzen du eta, ondorioz, gobernu taldearen erronka nagusietako bat.

Pello Salaburuk onartu izan duenez «*begi bistakoa da EHU ez dela gai izan deszentralizaziorari behar bezalako erantzunik emateko. Hala ere, kontu bone-tan filosofia bonek gidatu behar gaitu: kanpusetan eta ikastetxeetan egin daitezkeen lan guztiak, hor egin behar dira*». Dena dela, berak jakin badaki egun unibertsitatea orain lau urte baino hobeto dagoela egin-kizun hau behar bezala bideratzeko, «*ekonomiaren gestioa kontrolpean izanik, orain bideak aurkitu behar dira pausuok emateko*».

Lehiakortasunaren erronka

ERREKTORE izateko hau-

Unibertsitate konpetitiboa eta kalitatezkoa lortzea da Salabururen programan agertzen den irizpidea

teskunde kanpainan zehar, baita bozketa egunean ere, Pello Salaburuk behin eta berriro aipatu zuenez, «*unibertsitateak gaur egun duen maila gorde nahi baldin badu, konpetitiboa behar du izan, eta Europako unibertsitate boberenen mailan behar du etorkizunean*». Unibertsitatearen konpetibitate hau ziurtatzeko, errektorearen ustez hiru ardatz nagusitan isuri behar dituzte beren ahaleginak: irakaskuntzaren kalitatean, ikerkuntza eta nazioarteko harremanetan. Maila haue-tan lorturiko emaitzek egingo-ei dute lehiakor Europa mailan.

Lehenengo gaiari dagokionez, kalitatea bultzateak irakaskuntzaren ebaluazioa bultzatzea dakarrela argitu du Salaburuk. Ikerkuntzari dagokionez, zenbait urrats ematea proposatzen du: orain arteko programekin oro har segitzea. Hala ere, errektore berriak berak iragarri izan duenez, bere asmoa da gizarte eta giza zientzien mailetan egiten den lana bereziki bultzatzea hartarako behar diren baliabide guztiak jarriz, orain arte maila hori lehenetsunez bultzatua izan ez bada ere. Honekin batera, ikertzen hasten diren talde berriei laguntza ematea beharrezkotzat jotzen du, bestela finantzabideak talde egineta-

Euskara Plangintza berriaren arabera, 4 urtera ikasgaien % 65 eta 8 urtera % 100en euskalduntzea lortu nahi da

Miren Azkarate: «Euskara lantzea unibertsitateko arlo guztietan dugu helburu»

Noizko unibertsitate euskalduna?

EHUren helburua ez da izan inoiz unibertsitate euskaldun hutsa lortzea. Hori beste batzuen asmoa da. Gure plangintzaren arabera, lau urte barru de-

rigorrezko ikasgaien %65 euskaraz ematea litzateke. Irakasle elebidunak prestatu eta euskara lantzea unibertsitateko arlo desberdinetan dugu helburu.

Irakasleen euskara mailari egokia da?

Batzuetan ikasleen euskara maila irakasleena baino hobea da, baina

badira euskara maila oneko irakasleak.

Funtzionarioak bizkuntz profilak bete behar badituzte ere, irakasleek ez dute balako betekizunik, zergatik?

Euskalduntze plangintzaren arabera, borondatezkoa da irakasleen elebitasuna. Hala ere, gero eta gehiago dira euskarazko ikastaroetan aritzen diren katedradun eta irakasleak.

tsuena.

Nazioarteko harremanak bultzatzea dugu errektoreak defenditzen duen unibertsitate konpetitiboak behar duen

hirugarren hanka. Horrela, helburu hau hiru zutabe bidez lor daitekela azaldu du Salaburuk. Batetik, ikerkuntzako nazioarteko taldeak bultzatuz; bestetik,

irakasleen arteko mugikortasunari laguntza emanez eta, azkenik, unibertsitateak dituen programa berezietan baliatuz ikasleen mugikortasuna, nazioarte mailakoa, bultzatzeko.

Asmoak eta denbora

UNIBERTSITATE konpetitiboa, deszentralizatua, kalitatezkoa, publikoa, berri-tzailea, elebiduna eta aurrerakoa lortzeko lau urte besterik ez ditu errektore berriak, helburu hoiak lortzeko arestian aipatu zutabe eta bitartekoak jartzea lehen-tasun badu ere Euskal Herriko Unibertsitateko gobernu batzorde berriak. Asmoak ez dira eskasak, denborak esango digu errealtate bihurtzen direnentz.

MYRIAM GARTZIA



ra bakarrik mugatzen dire-lako. Maila honetan legoke aldaketa asmo garrantzi-

aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tinoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....


Bankua.....

Sukurtsal zk.....

Kontu zk.....

Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria eta Estatuak: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1.
40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52



«Beldur txikiz josita dago kultur mundua»

Ikastoletan jarduna, irratian saiatua, telebistan ibilia, unibertsitatera sartua, idazleen elkarteko ordezkari eta bertsolarien arteko perrexil. Berrogeita bi urte 'gaztez', euskal kultur-gintzan ikuspegi zabal samarra dutenetako bat da. Gogoetarako joera dauka, eta hitz jario samurra.

Unibertsitateratu berri samarra zara. Zer aurkitu duzu?

Gizartearen isla, bere gauza on eta miseriena. Kanpotik pentsatzen nuen gizarteko istiluak hemen apur bat baretu egingo zirela, jakintza eta gogoeta tarteko. Baina hemen gaiztoagotu egiten dira istiluok. Interes politi-



«Euskal Herriko Unibertsitatean ez dakit zenbateraino ez ote diren bi unibertsitate batean sartuta». (Argazkia: Marisol Ramirez).

koei interes pertsonalak eta interes akademikoak gehitzen zaizkie hemen. Ondorioz, istiluen mapa gizartean baino ere korapilatsuagoa da.


Herri eleaniztun batzuetan unibertsitate elebarkarren bidea hautatu dute. Hemen beste bidea daramagu. EHU izan liteke euskal unibertsitatearen bazia?

Euskararen ingurutik dato-

ren batentzat oso gogorra da ikustea EHU'n euskarak zer kontsiderazio gutxi daukan. Euskara ez da ikusi ere egiten. Adibidez, egin berri dira Bilbon Semiotikako II. Jardunaldiak, gure Sailak eta Euskal Semiotika Elkarteak antolatuta. Ez jardunaldi osoan, ez idazkietan ez dago hitz bakar bat ere euskaraz, euskara sinbolikoki erabiltzera ere ez dira iritsi.

Semiotikoak dira, eta alboan daukaten hizkuntza oso bat ez dute ikusten.

Zer unibertsitate da hau? EHU da Euskal Herrian dagoelako. Baina egotez aparte Euskal Herria Euskal Herri izan dadin ekarpena egin beharko luke. Gehiengoak funtzionatzen du unibertsitatea inongoa ez balitz bezalatsu. Badago ahalegin handia egiten ari den jendea ere, baina ez dakit zenba-



«**Kontabilitatea egin da, kultur politika baino. Lehentasunak jarri behar dira, gizartearekin eztabaidatu ondoren**»

**Gogoeta falta eta gogoe-
ten trukaketa falta?**

Bai, eta gero denekin ondo gelditu-nahi bat beharbada. Denei dirua banatzen zaie baina ez da proiekturik aurrera ateratzen. Horrek dakar denei behar dutena baino gutxiago ematea. Lehentasunak markatu behar dira. Adibidez, «Egunkaria» bada edo ez da euskararentzat proiektu estrategiko bat? Lehentasunak. Eta lehentasunetarako dirurik ez badago, ikusi egin beharko da zergatik ez dagoen dirurik.

Zertan gastatzen da diru hori?

Orain dagoen taldean disposizio hobea dago tratutarako, baina diru gutxi dago banatzeko moduan.

Andu Lertxundik duela bilabete batzuk idatzi du administrazioa inpunitatezko trajez jantzita dabilela. Zer gertatzen ari zaigu? Zerk sortu du ideia libreen plakaje hori? Bere galderak, zure erantzuna.

Ekimen pribatuaren dirua ez da sartzen euskara munduan, eta diru publikoaren esku geratzen gara guztiz. Jende gehienaren egoera da: behar duena baino gutxiago jasotzen du eta badu ezinegon bat, baina era berean ez da oso itxurosoa diru hori jaso eta beste eskuarekin xaxaka aritzea. «*Gaizki gaude baino protesta egiten*

«Zenbat eta gorago, mutuago hezitzen ditugu ikasleak». (Arg.: M. Ramirez).

teraino ez ote diren bi uni-
bertsitate batean sartuta.

**Euskal kultur gintzan
alor asko pasatakoa za-**

**ra. Ikuspegi borretatik,
adjetiba ezazu Eusko
Jaurlaritzako kultur po-
litika.**

Adjetiboa baino atzizkia ja-
rriko nioke; eza. Eta adjetibo
bat jartzekotan, erratikoa.
Kultur politikarik eza. Ge-
hiago egin izan da kontabi-
litatea, kultur politika baino:
zenbat diru daukagu, zenbat
dira eskaleak. Lehentasunak
behar dira, gizartearekin ez-
tabaidatu ondoren.

«**Ideologiaren arteko elkarbizitza ere, nik
uste inon ez bezala ematen dela
bertsolaritzan**»

badugu okerrago egongo gara», hori da euskarazko kulturaren miseriarik handiena. Eta badakit badaudela oraindik lista beltzak, ostrazismoak...

Zuk elkarrizketa hone-tannabi duzun guztia eta nabi duzun tonuan esango duzu, Idazleen Elkartetik tratuan zabil-tzala kontuan izanik?

Bai, arrazoi batengatik: duela pare urte erabaki dut askoz arrisku handiagoa dela tragala-tragala hori. Irentsiz geure buruari eta gizarteari kalte handiagoa sortzen diogu. Giro ustel eta beldur txikiz jositakoa sortzen dugu isilik egonez. Beldur txikiak dira handienak. Maiuskulaz aipatzen duten beldur hori (borroka armatutik datorren hori) estatistikoki oso txikia da. Piska bat mugituz gero, beste beldurrak agertzen dira, produktore txikiengan, proiektuak lantzen dituztenengan...

Sistematikoki gehiegikeria horiek salatzen hasi behar dugu. Batetik, laguntza eskatzea ez da limosna eskatzea. Teorian, gizartearentzat onuragarri diren neurrian eskatzen da laguntza.

Laguntza eskatze horrek ukatzen digu guri egiten den kultur politika kritikatzeko eskubidea?

Praktikan bai. Praktikan badakigu otzan eta esaneko izanda hobeto ibiltzen dela, eta gehiago igotzen dela. Uste dut normaltasunera iritsi behar dugula. Proiektu bat aurkezten badut baietza edo ezeztza irizpide egoki batzuen arabera jaso behar nuke. Hori kultura guztietan da beharrezkoa, baina gurean, hain txikia, hil edo bizikoa. Bestela ideo-



«Laguntza eskatzea ez da limosna eskatzea». (Arg.: Marisol Ramirez).

logikoki kastrutatuko esparrua sortzen ari gara.

Gure kulturaren idatzizko eta abozko esparruetan zabil-tzala sartuta. Zerk erakarri zintuen bertsolaritzara?

Lilura magiko batek. Gaztetxotan halako erakarmen bat sumatzen nuen. Gero plazer hutsez, juerga giroan, kantu-

zahar eta abarrekin batera. Euskadi Irratian sartzean bertsoaren inguruan zerbait fuertea egiteko enkargua jaso genuen, Herri Irratia zelako bertso munduko erreferentea. Modu profesionalean bizita, begiratu ingenuo hori galtzen duzu. Lehen askoz gehiago gozatzten nuen bertsolaritzaz.


Bertso saio batekin gozatze hutsa edo lau lagun elkartu eta bertso-juerga egitea zailagoa zait orain.

Zer dakarkio bertsolari-



NORTASUN AGIRIA

Errepublika egunean jaio zen Legazpin, duela 42 urte ● Bartzelonan hasi zituen Kazetaritza eta Filosofia ikasketak, beranduago bukatzeko ● Arrasateko ikastolan lau urte eta Tolosakoan bi urte egin zituen ● Alemanian bizi izan zen bi urtez ● Euskadi Irratian bost urte egin eta telebistara pasa zen bertso programa egitera ● Bi poemario, gazteentzako bi eleberri, ipuin, artikulu solte eta haur baten aita ● Squashetik hasi, palaz segi eta esku pilotara hurrenez hurren txartzen da bere jokoa ● Bizikletaz ibiltzen da, horregatik lapurtu diote



«Bertso-saio batekin gozatze hutsa edo bertso-juerga egitea zailagoa zait orain. (A.: M. Ramirez).

tzak gizarte boni?

Bertsolaritzak zaharraren zaharrez azkenean historia-
ren trena harrapatzen du,
historia bueltaka dabil eta.
Frantziako Iraultzaz gero
egon den idatzizkoaren na-
gusitasunaren ondoren iku-
sentzutekoen arora pasa
gara. Gu modernizatu gabe
harrapatu gaitu, horregatik
dauzkagu ahozkotasanari
dagozkion errelejo batzuk.
Baina montatu dugun siste-
ma dezimononiko honekin
tematzen bagara, lortuko
dugu abantaila hori deusez-
tea.

Adibidez, eskola sistema
astakeria da. Zenbat eta
gorago mutuago hezitzen
ditugu ikasleak. Hizketan ez
dakiela iristen da jendea.
Nire ikerketatxoa hortik
egin nahi nuke: bertsolari-
tzak kulturgintzan daukan
garrantzia, ahozko erretori-
karako aukera bat eskain-
tzen du, kazetaritzan ere

aprobetxatzeko modukoa.
**Esan ezazu bertsolari-
tzaz buruan daukazuna.**

Telebistaren kontu hori pu-
rian dagoenez, momentuko
fruituengatik duintasuna
saltzea ez dut uste ez bertsola-
ritzarentzako eta ez euskal
kulturgintzarako onuragarri
izango litzatekeenik. Ikusi
egin behar, noski, duinta-
suna non dagoen eta hori,
baina kezka horrekin beti
ibili behar da. Euskal kul-
turako beste esparrutan da-
goen ezinegon hori, diru
apurtxo bat jasotzeagatik
egindako tragala guztienga-
tik da asko. Bertsolaritzak,
nik kalkulaten diodan ba-
lore handienaz aparte, ahoz-
kotasunaren esparru fuer-
teena izateaz aparte, badu

beste bat: autonomia batean
ibili da.

Gero, gizartean ezinezko
diren gauza batzuk gerta-
tzen dira bertsolaritzan, oso
eskala txikian. Hizkera mai-
lan egin den batu-moduko
bat, erretorikarekin zeriku-
sia duena. Eta ideologiaren
arteko elkarbizitza ere, nik
uste inon ez bezala ematen
dela.

**Idazleen Elkartearen, Ber-
tsolari Elkartearen eta
abarretan zabilta. Gi-
zartegintza ulertzeko
modu bat da?**

Baina *a posteriori*. Behar bat
ikusten duzu eta hori aurrera
ateratzeko tematuta sartzen
zara gauzetan.

**ETB barrutik ezagutu
duzu. Telebista publiko**

**bat telebista kon-
trolatu biburtzen
duten mekanis-
moak zein dira?**

Diseinua bera izango
da. Administrazio
Kontseilu bat dago,
baina horretan ez dut
sekula sinetsi. ET-
Bren kudeaketa beti
egon da EAJren esku,
eta TVEn PSOerekin
gertatzen dena gerta-
tzen da hemen ET-
Brek, eta seguruenen
sartuko litzatekeen
beste partidu batek
beste hainbestetsu-
edo egingo luke.
Arriskua sisteman
bertan dagoela diru-
di. Hori iritsi naiteke
ulertzera, ez onartuta
ere: alderdi batek
bere buruaren zerbi-
tzurako erabiltzea te-
lebista. Baina gra-

beena da kapritxo pertso-
nalak modu feudalean sar-
tzea. Hori ikusi izan dut nik,
eta gutxiago ulertzen dut.

**Zer datorkigu gainera
bedabide aukera berrie-
kin?**

Medio indartsuenean, tele-
bistan, aukera izugarri hazi-
ko da, kable bidez. Hor
euskararen presentzia ez da
areagotuko, eta egiten dena
galduago egongo da itsaso
horretan. Orain ETBk eus-
kaldunon kohesio funtzio
bat betezen du behintzat, eta
hori gal lezake. Kable bidez
banaketa edonork egin de-
zake lizentzia lortuz gero,
eta berdinean utziz gero
euskara likidatzea litzateke.
Hor neurri politikoa hartu
behar da, lehentasunak
markatuz, gauzei aurrea
hartuz.

**Datorkigun hori buruja-
betasunerako argudio
bat gebiago da ala argu-
dio bat gutxiago?**


**« Lehentasunetarako dirurik ez badago,
ikusi egin beharko da zergatik ez dagoen
dirurik; zertan gastatzen da diru hori? »**

« 'Gaizki gaude baino protesta egiten badugu okerrago egongo gara', hori da euskarazko kulturaren miseria handiena »

Kontua Espainian geratu den bezala geratzen bada ihes egingo digu, ezingo dugu ezer bideratu. Estatu zentralak eta udalek dute zeresana, autonomiak puenteatuz. Burujabetasunaren behararen aldeko argudioa da. Hor derrigorrez sartu beharra dago. Benetan arlo horretan euskara aurrera ateratzeko *de facto* izan behar-ko genuke buruaren jabe, bestela merkatuaren legeak euskara eskualde askotatik kanpora utziko luke.

Euskararen aldeko abalegin borrek guztiak zergatik merezi duen ustekabez galdetzean, erantzuna ez daukagu berdoildu samarra?

Kontua gero eta gehiago ekologikoa da. Ni ez naiz ari inoren alde majoa naizelako, ezingo nuke bizi bestela; nire buruaren alde ari naiz. Ari naiz gordetzen munduan bakarra den gauza bat, euskara. Pisako dorrea eror ez dadin zenbat diru gastatzen ari den ikusten dugu. Horrek adina balioko du hizkuntza batek, mundu ikuskera oso bat gordetzen duen sinbolo multzo batek. Gu ari gara desberdina eta gurea den gauza bati eusten, jakinda guk egiten ez badugu hurrengo belaunaldiak jai daukala, hil edo biziko kontua da. Horregatik gara akaso antsioso samarrak. Merezi ditu estres batzuk.



«Kultur politikan otzan eta esaneko izanda hobeto ibili eta gehiago igotzen da». (Arg. M. R.).

Koka zaitetz «ezker» hitzaren inguruan.

Kokatuta nago, hor nago. Mundua ulertzen saiatzen naiz ezkerreko kultura batetik. Maiz konturatzen zara gero zure diskurtsoa eta praxia ez doazela batera. Gure

burua ukatzea tokatu zaigun belaunaldia gara, baina asumitu egiten da. Hor segitzen saiatzen naiz. Dogma gabeko ezkertiar izateak etengabeko arreta eskatzen du. Zerikusia du justizia askatasunaren baldintza moduan

hartzearekin, elkartasunarekin, zure etxearen garbitzaileaz duzun tratuari... gauza askorekin du zerikusia. Gehiegirekin, denak ondo egiteko.

JON SARASUA

Hitzarmenaren neurriko mapa

JOXE Mari Zeberio agur esan digu. Isilik joan da, bidali dutelako ahorik ireki gabe. Bere lanak ez du laudorio handirik jaso, ez Mari Karmen Garmendiarengandik, ezta solaskide izan dituen herri erakundeengandik ere. Desafinatzeagatik bota omen dute. Zegokion tonutik piska bat kanpo aritu delako. Arraunean taldearen martxari jarraitu ez diolako. Hauek sailburuak emandako esplikazioak. Edo metaforak. Kultura eta kirola bat datozela adierazten dutenak, eta halakoak 'kiroltasunez' hartu behar direlako erakusgarri. Jose Mari Agirrek ondoko elkarrizketan aipatu digunez, Iruretak ere igandero aukeratzen du hamaikakoa, partidurako egokienak iruditzen zaizkion jokalariekin. Hiru adibide beraz, hiruak diferenteak. Joxe Mari Zeberio AEKrekin desafinatu duela, hizkuntz eskakizunen bigarren

balizan tronpatu dela edo batean hala bestean ez duela Kulturaren zelaia ondo defendatu adieraz dezaketenak.

Zuzendariaren batutari zuzen jarraitu dion musikaria izan da ordea, Joxe Mari Zeberio. Patroiaren agindutara arraun-kolpeak eman dituena. Entrenatzailearen esanetara baloia mugitu duena. Oso morroitsu. Ondotxo dakite hori kulturgintzan dihardutenek. Zer gertatu da orduan, Mari Karmen Garmendiak azken bost urteotan alboan izan duena kaleratzeko? AEKrekin sinatutako hitzarmena, gero atzera bota ziotena, dugu klabeetako bat. Bost urteotarako lotu zuen diru-konpromezua onartezina gertatu da Gobernuarentzat. Ezinezkoa da ulertzea, hala ere, Zeberio konpromezu hori Kultura sailburuaren bizkar hartzea. Norbaitena izatekotan, Garmendiarena zen noski, erabakia. Nork desafi-

natu du beraz, pieza horretan? Ordaindu bai, Zeberio ordaindu du eta oso garesti gainera. AEKrekikoak eta kargu aldaketa denboraz oso hurbil gertatu dira batak bestearekin loturirik ez duela sinesteko. *Enrokea* egin eta peoia sakrifikatu da.

Hizkuntz Politikaren arduradun gisa, hizkuntz eskakizunen bigarren

■ Eskola maparen inguruan egon zitezkeen inkognitak zirt-zart argitu dira, manifestazioa eta astebetara uholde arriskuz zetozkeen urak bere onera ekarriz

Euskadiko Orkestra Sinfonikoz gain, Jaurlearitzak Bilbokoa ere finantzatu beharko lukeela iritzi du adituen batzorde batek.

Eta Euskadikoak Gipuzkoako erakundeen esku ere egon beharko lukeela. Gerentziaren alorrean elkarrekin lan egitea, bakoitzaren eremuak finkatzea eta egiturak berregokitzea proposatu dute, kalitate aldetik eta beren lana ezagutarazteko eman beharreko neurriekin batera.

Euskasiko Orkestrako musikariek gogor salatu dute txostena.

(Argazkia: Leire Arzuaga).



Entzun, entzun eta entzun!

plangintzaldia zuen, bestalde, eskue-
tan Zeberioek. Behin eta berriz atze-
ratzen ari dena. Egun EAEko adminis-
trazioak kieto daude, ez aurrera ez
atzerá, Jaurlaritzak zer esango zain.
Hauteskundeak tartean direla, gaine-
ra, ez dirudi berehalakoan adostuko
denik. Sailburuordea erre duen biga-
rren klabetzat jo daiteke. PSOErekin
enfrentatuta egonik, aurrera egiten
utzi ez diotelako. Nolanahi ere, ekipo
berriaren ibilbideak zehaztuko digu
hobekien metaforen azpian gordetzen
den errealitatea. Eta oso denbora gu-
txian ur handietara arraun egitera eto-
rri den Josune Aristondok.

ESKOLA maparen inguruan egon
zitezkeen inkognitak zirt-zart argitu
dira, Bilboko manifestazioa eta aste-
betera. Akordioa lortu dute. EAEko 25
eskola bilduneetatik (bederatzi daude
Gipuzkoan, hamabi Bizkaian eta lau
Arabán) bakarra geratu da, Gasteiz-
koa, hitzartu gabe. Eskola munduan
hainbeste desafinatu duen testuaren
inguruan egindako proposamenik ge-
hienak aintzat hartu direla eta ondo-
rioz akordio «zabal eta orekatua» er-
dietsi dela adierazi dute alde batekoek
nahiz besteekoek.

Halarik ere, irakaskuntzaren eus-
kalduntzearen inguruko kezkek ge-
ratu dira zintzilik, EKBren iritziz: «*Ez
dago Hezkuntza Sailaren aldetik ino-
lako aurrerapausorik euskalduntze-
ari dagokionez, planak atzerapausoa
ekarriko dio euskarari*». Eta Jesus Ma-
ria Alonso Jaurlaritzako Nekazaritza
zuzendariak landa inguruetao eskolei
buruz esandakoak: «*Beldur naiz
eskola mapak atzerapausoa ez ote du-
en ekarriko landa inguruetao*».

Guztiarekin, batzorde misto bat era-
tu dute Derrigorrezko Bigarren Hez-
kuntzaren inplantazio prozesuaren
jarraipena egiteko, antolaketa nahiz
funtzionamendu araudien berrikuntza
dela, materiale didaktikoa, hizkuntz
profilak eta beste.

Hitzarmenak uholde arriskuz zeto-
zen urak bere onera ekarri ditu.

J.J. PETRIKORENA

A

SPALDIKO pelikuletan indioek belarria lurrean jarrita antzema-
ten zuten, zenbat zaldi ziren erasotzera zetozenak edo trena non
zetorren edo... Gaur ere, oraindik, izugarri belarri fineko jende asko
dabil gure artean: bati entzuna besteari kontatzeko trebezia izu-
garriarekin edo anbulantzia eta suiltzaileen sirena hotsak urrutira
bereizten dituztenak edo... Baina, ba al dakigu entzuten?

Batzuk, aurrean daukaguna hizketan ari zaigunean, bestaldera begira,
ahozabalka, kokotean hazka egiten, hazkazalak jaten nahiz egunkaria
irakurtzen aritzen gara.

BESTE batzuk, hontzarenak eginez, begiak zabal-zabal aurrekoa irentsi
behar bagenu bezala, baina aurrekoa
konturatu da gure begiek ikusten
dutena eta belarriek entzun, ez da-
bilela gure zerebroan.

Hirugarrenek, autoen atzeko
apaletan buruarekin baietz eginez
doazen txakurtxoan antzera, edozer
entzunda ere, buruaz baietza ema-
nez laguntzen diogu solaskideari. Ez
arrazoi osoa duelako edo jakinmin
izugarria piztu digulako, bere kezke-
kin bat gatzozela adieraziz, 'ondo ge-
ratzeko' baizik.

Bilera 'formalagoetan' entzuten
dugun dena idazteko joera ere ba-
dugu, honela arreta sakona bema-
tzen zaiolarik hitzunari. Auskalo ge-
ro zer idatzi dugun!

Loroarena egiteko joerak ere maiz
hartzen ditugu. Aurrekoak esan
duen dena errepikatuz ekiten diogu gure erantzunari baina, azkenean, hark
esandakoari kasurik egin gabe geuk aurrez pentsatzen genuena bota eta
kitto!

NIK uste, ondo dagoela hontzarena, loroarena eta autoen atzeko apalean
doazen txakurtxoena egitea baina, hizketan ari denari benetan esan nahi
duena esaten laguntzeko baldin bada; hark adierazi nahi diguna ulertzeko
asmoz ari bagara: ahalegin berezia egiten ikasi behar dugu bestearen
zapatiletatik begiratura gauzak nola ikusten diren jakiteko. Aztertu zer
koloretako lentilak darabiltzan gauzen benetako irudia jasotzeko. Horrela
bakarrik ari gara bestea ulertzen eta horrela bakarrik esango digu benetan
pentsatzen duena, bera ulertzeko ahalegina nabaritzen duen bitartean.

Besteek diotena entzuten dugunean entzungo digute; besteek ulertzen
digutenean ulertuko gaituzte.

Ez baduzu ezer ulertzen, hasi berriz.




IÑAKI MURUA

TXUTXU - MUTXUKA

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN EGITASMOAK

IPAR Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundeak hainbat lehentasun zehaztu ditu aurtengo urteari begira: euskararen alorrean, bigarren inkesta soziolinguistikoa osatuko du; «Xirrixa»-ren bidetik, 8-10 urteko haurrentzat izango den aldizkari bat plazaratuko du; sare profesionala azkartzeari begiratuko dio, kultur zentroen eta taldeen parte hartzeaz; barnekaldeari harreta berezia jasoko du, orokorki kultur hedapenari dagokionez; eta erakundea sortu zenetik lehen bost urteak iragan direla eta, egindako lanen bilduma eta aurrera begirako ikuspegiak azalduko dituen liburua plazaratuko du.

NOR - NORI - NOR K




ALBERTO SCHOMMER

San Fernando Arte Ederretako Errege Akademiako kide izendatu dute. Eskultura eta Irudiaren Arteak sailaz arduratuko da, Juan Gyenesek utzitako lekua betez. Akademiako kide izendatzen duten bigarren argazkilaria da Schommer. Erretratu psikologikoak dira bere lan ezagunenak. Une honetan «Dioses y angeles» lana egiten dihardu eskultura eta instalazioen inguruan ●



JOSUNE ARISTONDORI

eman dio Hizkuntz Politika zuzentzeko ardura Mari Karmen Garmendiak, Jose Mari Zeberio kargutik kendu ondoren. Iazko otsailean Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako zuzendari izendatu zutenetik, gora egin du etengabe Aristondok, urrian amaieran HABEko zuzendaritzara eta sailburuorde kargura orain. Jokin Azkue izango da aurrerantzean HABEko zuzendaria ●



ANTONIO MARIA GARATEK

bere lehen luzemetraia aurkeztu du Miarrizteko festibalean: «Besos y abrazos». Maritxu eta Toño bi anai-arreben bizitza kontatzen du filmek. *Skinhead* talde batek hil egingo du Toño. Maria Bornaetxea eta Rafael Santamaria aktore ezezagunek bete dituzte rol nagusiak. Iruindarra jaiotzez, kazetari eta zinemagile lanetan ari da TVEn Antonio Maria Garate. Aurretik bi laburmetraia eginak zituen ●

TAK ■ NOSFERATU ZIKLOA DONOSTIAN

MARTXAN da Nosferatuk antolatutako ziklo berria, aurtan Hollywood klasikoko hamalau filme eskaintzera datorrena, Donostian, Antzoki Zaharrean, martxoaren 27ra bitartean. Euskal Herrian oraindik ikusi gabeko tituluak izango dira guztiak.

Filmeak 1933tik 1955era bitartean egindakoak dira, maisulana, Donostiako Kultura Patronatoko arduradunek adierazi dutenez. Raoul Walshen «Along the great divide» lanak zabaldu du zikloa, eta bi hilabeteotan, Jhon Hustonen «The Maltese falcon», Borzageren «Moonrise», George Cukorren «Dinner at eight» moduko perlatu ikusteko aukera izango da.

Bigarren mailakoak kontsideratuak izan diren izar hainbaten (John Carradine, Gloria Graham edo Angela Lansbury, adibidez) lana ondo ezagutzeko parada eskaintzen dute pelikulok, eta horiei omenaldia eskaintzera dator Nosferatu.

Jatorrizko hizkuntzan erakutsiko dira irudiak, gaztelarazko azpitituluez. Orson Welles zuzendariaren «IV. manamendua» euskarazko azpitituluez eskainiko da, otsailaren 21ean, Euskara Patronatuarekin egindako elkarlanari esker.

Zikloaren aurkezpenarekin batera, aldizkaria kaleratu da, idazle eta zinema kritikari ezagun askoren parte hartzeaz, hala nola Fernando Savater, Guillermo Cabrera Infante, Miguel Marias eta Diego Galan. Honez gain, bostehun argazki inguru sartu dituzte.

Sektorea ETBren menpe ageri da, ikusentzunezko lanen % 40 bere enkarguz egiten baita

Ikusentzunezkoen sektorea: legerik gabeko lurraldea

IKEIk euskal ikus-entzunezko sektorearen egoera azaltzen duen txostena argitara eman zuen iazko abenduan. Kultura Departamentutik irten den ekimen honek ajente pribatu nahiz publikokoentzat erreflexio puntu bat izatea nahi du, sektorearen egoera oso ziurgabea baita.

EAE-KO ikus-entzunezko alorreko enpresei buruzko txostena atera zuen iazko abenduan Ikei etxeak. Ekimen hau Eusko Jaularitzako

Kultur Departamentutik abiatu da eta bere helburua alor honetako egoera azaldu eta erreflexio bat egitea da. Lana egiteko galdetegia bi-

dali zitzaien 40 enpresari, baina 23k emandako erantzunekin osatu dute.

Alor honetako bereizgarri nagusia da enpresa desber-

dinak jasotzen direla, hots, produktoreez gain, aktore elkarteak, zuzendariak eta beste hainbat talde aurki ditzakegula. Bestalde, ahultasun handiko sektorea da: inolako erreferentzia edo eredurik ez du, eta honetaz gain enpresa tradizio txiki-koa da. Honek alor honen sinesgarritasuna oso txikia izatea dakar, eta ondorioz, dudazko sektore ahularen itxura hartzea.

Finantzatzeko zailtasunak

BIGARREN ahulezia nabaria da enpresa hauek beraien produktuak finantzatzeko eta komertzializatzeko zailtasun handiak dituztela. Produktoreen diru ahalbi-dea txikia da. Kapital pribatuaren inbertsioak ere urriak dira, eta horrez gain bankuek beren finantz egoerak gogortu eta kredituen kostuak igo egin dituzte. Arlo hau, gainera, industria sektorean ez da sartzen, eta horregatik Administrazioak ematen dituen laguntzak jasotzeko aukerarik ez du.

ENPRESEN JARDUERA

ENPRESA MOTAK	ZENBK	%
ENPRESA EKOIZLEAK	15	65
1.- Fikziozko zinemagintza	7	30,4
2.- Animazioko zinemagintza	2	8,7
3.- Ikusentzunezkoa	9	39,1
ZERBITZU ETA EKOIZLEN ENPRESAK	6	26,1
4.-Ikusentzunezko eta zerbitzuzkoak	6	26,1
ZERBITZUZKO ENPRESAK (Produkziorik gabe)	2	8,7
5.-Produkzioa	-	-
6.-Post-produkzio	1	4,3
7.-Produkzioa eta post-produkzioa	1	4,3
BESTE ERATAKOAK	7	30,4
8.- Publizitate zinema, bikoizketa, promozio eta salmenta, musika grabaketa...	7	30,4
GUZTIRA	23	100,0



1994an filmeek 300 milioi pezetako gastua izan zuten; ikus-entzunezko lanek berriz, 2.450 milioikoak osatu zituzten

baten barnean daudenak, berriz, % 35 dira.

Koproduzioaren bidea da beste sektoreko enprekin lan egiteko modu nagusia (% 64). Azpikontratazio edo kontratu pribatuak ez dira apenas erabiltzen.

Lana eta langileei dagokienez, 13 langile finko ditute, batez beste, enpresa hauek. Hala ere, enpresa gehienek oso egitura txikia dute, erdiak 5 langile finko edo gutxiagorekin ari direla, ehunekoak enpresa handi batzuek igotzen dutela. Soilik hiru enpresa dira 40tik gora langile finko dituztenak. Langile kopuru osotik 1994an % 40 zen finkoa eta %60 behin-behinekoa.

Ikusentzunezko sektorea heterogeneo eta ahul azaltzen da txostenean.

Hemen ere euskarazko produkzioa ateratzen da kaltetuen, hau bultzatzeko ekimen oso gutxi baitago.

Enpresa hauek, gainera, ez dute egitura komertzialik, eta ETBrena eskasa da. Honi erantzen badiogu telebista hau dela produktoreen lan-iturri nagusia, produktua gure mugetatik ateratzeko zailtasunak handitu egiten

dira. Euskal Telebista, urte-urtera, bere barne produkzioa handitzen ari da, eta honek eragin handia eduki dezake beste enpresetan.

Enpresen ezaugarriei dagokienez, kapital sozial murrizta dute, soilik % 50ek aitortzen baitu 10 milioi pezetakoa (400.000 libera inguru) duela kapitala. Beste guztiak hortik behera dabil-

tza, batez beste 7,5 milioi pezetako ondarearekin. Enpresa hauen bazkidegoa, berriz, talde txikiak osatzen dute, enpresen erdia baino gehiagotan 2 edo 3 pertsonak zuzentzen dute guztia.

Egituretzeari dagokienez, ia denak sektoreko elkarteren batean sartuta daude (% 91), erdiak Adeade-n daudela. Enpresari talde

Ogibidea eta produkzioa

LANGILEEN ogibideei dagokienez, finkoak diren artean teknikariak dira kopuru aldetik nagusi, % 35 osatuz. Hauen atzetik, berriz, bikoizketa lanak egiten dituztenak daude, % 23. Gutxien azaltzen direnak kreatiboena eta komertzialena dira, % 4ko presentzia dute. Behin-behinekoen artean gehiengoa aktoreek (% 29) eta bikoizleek (% 27) osatzen dute; gutxienak produkzio teknikariak dira.

Enpresen % 65 produktore bezala ageri dira txostenaren arabera. 1994an 9 filme egin zituzten, guztien


ENPRESEN DIRU ITURRIAK ETA BABESAK

1994

ZINEMA

IKUSENIZUNEZKOA

	<i>Enpresa Kopurua</i>	<i>Batazbesteko Zabalpena%</i>	<i>Enpresa Kopurua</i>	<i>Batazbesteko Zabalpena%</i>
Euskal Media Koprodukzioa	2	22	1	15
Beste Koprodukzioak	-	-	-	-
Kultura Ministerioa	3	23	-	-
Eusko Jaurlaritzak	-	-	1	3
Antenako salmenta eskubideak	-	-	-	-
Emisiozko salmenta eskubideak	1	20	-	-
TV-rekin koprodukzioa	-	-	1	15
TV-ren enkargua	1	90	9	81
Banku kredituak	1	30	2	9
Banaketa aurrerapenak	-	-	-	-
Norberaren finantziakzioa	3	32	3	17
Besteak	2	25	2	35
ENPRESA GUZTIAK		4		9



«Gauzak aldatzeko ekimena Gobernutik etorri beharko luke», dio Angel Amigok, Igeldo produktorakoak.



Arantxa Lazkano zuzendari eta produktorearen ustez, enpresa txikiak ez zaie behar bezalako laguntza ematen.

kostua 300 milioi pezetakoa izan zela. Honek zera esan nahi du: portzentaia honetako enpresa guztiak ez zutela filme bakar bat ere egin. Alor honetako % 26 produktore eta zerbitzuak dituztenak bezala ageri dira, eta hemengo diru kopurua askoz ere garrantzitsuagoa da, 2.450 milioi pezeta. Azkenik, % 9k zerbitzuak baino ez dituzte eskaintzen, hots, produkzio eta post-produkzio zerbitzuak.

Zein da, ordea, hauen finantziabidea? Zinemagintzan produktoreak dituen baliabideak eta Kultur Ministerioaren laguntzen bidez

egiten da. Hirugarren mailan Euskal Media egongo litzateke, eta gutxiengo bat da bere emisio eskubideak saltzeagatik diru hori lortzen duena. Ikus-entzunezko produkzioan, aldiz, telebistak egiten dituen enkarguek osatzen dute finantzabide nagusia, produktorearen baliabide eta banku kredituekin batera.

ETBren garrantzia

BANAKETA da produkzio-kate honen azken pausoa. Hemen egindako filmak EAEn, Espainian, Europako herrialdeetan (% 70) eta Latinamerikan (% 65) bana-

tzen dira batez ere. Hauen zabalpena euskal produktore eta estatuko banatzaileen bidez egiten da. Irabaziak, aldiz, nahiko urriak dira, filmeek inbertitukoaren % 10 soilik bueltatzen dute. Telebistan agertzeak, ordea, diru gehiago ematen du, nahiz eta kopuru hau ere txikia izan, % 28koa.

Ikus-entzunezko produktora eta zerbitzu enpresen bezeroen artean ETB da garrantzitsuena, egiten diren lan guztien % 40 bere enkarguz egiten baitira. ETBren garrantzia ikusirik kezkatzekoa da honek bere etxeko produkzioa igotzeko asmoa duela jakitea, bera baita produktora askoren sostengu. Produktu hauen beste erosleak publizitate enpresak dira, eskaeraren % 18 hartzen dutela.

Txosten honen inguruan iritzi desberdinak sortu dira. Euskal Zine Ekoizleen Elkarteke partaide den Alberto Telleriaren ustez, lan interesgarria eta aldi berean zaila da Ikeik egin duena. Bestalde, ikus-entzunezko euskal institutu baten beharra ikusten du, beti ere produktoreei inizatiba eman eta euskal sektore hau arautuko duen legeria baten pean. «Produktoreok jartzen dugu dirua, eta kontuan hartzekoa da arrisku eta ziurgabetasun ugariri aurre egiten diegula. Hori ekiditeko zerbait egonkorra beharko genuke esku artean. Institutuz honek, gainera, gure sektorea eta ETBren arteko bitartekaritza lana egingo luke».

«Institutu baten beharra ikusten dut, beti ere produktoreen inizatibarekin»
ALBERTO TELLERIA

IDOIA TORREGARAI

Bertso Egun 'kosmopolita' egingo da datorren 27an Donostian

Alpujarrak eta Menorcatik bertsoan

Gandiotia eta Miquel Ametller izenak aditzean ez genituzke bersolari munduan kokatuko, baina koplari gisa, bi 'bertsolari' hauek arras ezagunak dira Espainiako Andaluzia eta Menorca aldean.

MIGUEL Garcia «Gandiotia» 9 urterekin hasi zen koplak kantatzen. 59 urte dituela, Alpujarretako *troveros* deitutako en maisu dugu: «*Gaitasun berezia behar da trovero on bat izateko; ez da ikasten, sentimendua baita*». Alpujarrak, Espainiako Granada eta Almeria probintzien artean dagoen eskualdea da. Duen orografia menditsuari esker dirau, neurri handi batean, bertso inprobisazio mota honek. Urtero, adibidez, Alpujarretan egiten den Musika Tradizionalaren Jaialdian abes-



Miguel Garcia «Gandiotia» dugu, gaur egun, Alpujarretako 'troveros' deitutako en maisu.

ten jarraitzen duten dozena inguru *trovero* biltzen direla azaldu du Andaluziako Musikako Dokumentazio Zentroko zuzendaria den Fernandez Manzanok.

Gaztetxoagoa zen Miquel Ametler menorarra *glosak* abesten hasi zenean. «*Haurra zarela ez diozu inolako baliorik eskaintzen abesteko gaitasunari, baina urteekin*

obitura hau mantentzeak duen garrantziaz konturatzen zara», adierazi digu.

Gandiotia bezala, ez dhardu profesional moduan. «*Hobbya da musika niretzat -erantsi du-, habanerentzako letrak konposatzen ditut, adibidez. Ogibidez igeltseroa naiz*».

Bat-batekotasuna eta entzuleak

GANDIOTA eta Miguel Ametller bat datoz koplari on bilakatzeko funtsezkoa dela ondo inprobisatzea, *trova*-n nahiz *glosa*-n. Bat-batekotasun honek badu gure bertsoekin zerikusi handirik. Dena den, musikaz lagundurik joan ohi dira. *Purdera* izeneko gitarraren musikarekin batera kantatzen dira *glosa*-k; *trova*-k berri, gitarra, biolina eta bandurriarekin. Badago, hala ere, *trova* antzetzeko beste modalitate bat: hots hutsez, errezitatuz direnean.

Kopla mota hauen beste ezaugarri bat ere aipatu dute bi abeslariak, entzuleek duten garrantzia: «*Aretoan sartzen garenean, entzulegoa eta giroa ikusi ondoren erabakitzen dugu gure abestien nondik norakoa*».



Pako Aristi idazlea Bernardo Gutierrezekin, La Palmako 83 urteko 'versador' batekin.

Menorcan badago ohitura bitxia: ikuslegoa abeslariak bereganatzen saiatzen da zerbait edateko gonbidapena luzatuz; orduan euren herriko esamesak kontatzen dizkiete horiei buruz abes dezaten.

Lehenengo aldiz bertsoariekin

GURE bertsolariak ezagutzen dituzten galdetu diegunean ezetz esan digute biek. Orain arte liburuen bitartez soilik jakin dutela hemengo berri. Datorren larunbatekoa lehenengo aldia izango da bientzat Euskal Herrian: «Niretzat ohorea da Bertso Egunera gonbidatu izana. Irrikitan nago euskaldunek nola abesten duten entzuteko. Baina euskaraz egiten dute, ez?

Espero dut esaten dutena norbaitek itzultzea», esan du Gandiotak. Poz berdina azaldu du Ametllerrek.

Gandiotak Jose Lopez Sevillarekin abestuko du; Ametllerrek, Esteban Barcelo eta Antonio Ponselkin. Gonbidatu berezi hauek ekartzeko ekimena Bertsolari Elkartetik etorri da. 1995eko Uda Ikastaroetan herri literaturari buruzko ikastaroa antolatu zen, eta bertan Mallorca, Andaluzia eta Galiziako adituek bere ahozko tradizioen berri eman zuten. «Gure helburua lehenengo harreman bat izatea da, beraiek egiten dutenaren argazki bat eskaintzea, gurea erakutsi eta aurrera begira ea zerbait garrantzitsuagoa suertatzen den», adierazi du Jesus

Muruak, Bertso Eguneko antolatzailleetako batek.

Euskal Herrian bertsoekin gertatzen den antzera badira *trovak* eta *glosak* ikasteko eskolak Andaluzia eta Menorcan. Ametller irakaslea da Menorcako eskola batean; hala ere, bere ustez ezin da *glosak* botatzen ikasi: «Barnean dagoen zerbait denez ezin da irakatsi. Nik teoria ematen diet nire ikasleei, glosa bat egitean nola jardun behar duten

jakin dezaten». Gandiotak, irakaslea ez izan arren, abestera elkartzen diren ilunabarretan irakasle edo gai-jartzaile lana egiten du.

Egun, dozena bat *trovador* eta Menorcan hiru *gloradors* besterik geratzen ez direla, etorkizunaren beldur ez ote diren galdetuta, tajuz erantzun du Ametllerrek. «Historiak argi erakutsi digu batzuek bukatzen dutenean beste norbaitek ekiten diola». Pentsamendu beretik ageri da Gandiota ere.

Bi inprobizazio mota hauetaz gain, badira gehiago: Galiziako *regeifes* eta Kanarietako *versadores* dedituak. *Regeifes*-ak A Coruñan abesten diren satira antzekoak dira; ia desagertuak.

Kanarietako koplariet dagokienez, gaur egun La Gomera uhartean bakarra gelditzen da eta zazpi La Palman.

Mundu zabalean, berriz, ahozko tradizio honen adibide gehiago aurki daitezke: ezagunenak Argentinako *payadores* eta Cubako *decimistas*. Saharako basamortuko tuaregek, berriz, auzoko tribuekin dituzten liskarrak agertzeko erabiltzen dituzte bertsoak.

IXIAR ROZAS



**Aldaba-Txiki
auzoa**

TOLOSA

65 29 64

**ISASTEGI
SAGARDOTEGIA**

Funtsezkoa da bat-batean aritzen jakitea, hala 'trova'n nola 'glosa'n, gure bertsoekin tankerarik hartzen dutela

Jose Mari Agirre, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Kirola eta Gazteria sailburuordea

«Kultura aurrekontuen % 95 bahituta dago; sekulako loturak sortu ditugu»

Gipuzkoako Hazienda diputatu eta Eustat erakundearen zuzendari aritu ostean heldu da Eusko Jaurlaritzako Kultura sailera Jose Mari Agirre, sortzez ataundarra baina Tolosan bizi dena. Bere koordinaziopean dauden alorrak ukitu ditugu elkarrizketan, orkestrak direla, ikus-entzunezkoak, museoaren plangintza eta aurrekontuei garrantzia emanaz.

Joxe Mari Zeberioak AEK-rekin hitzartutako testua izan al da, gero atzera bota zena, Kultura saileko orkestra desafinatu eta bera kargutik kentzea ekarri duena?


Gure sailean taldean lana egiten ari gara, taldean lan egitea gustatzen zaigu, eta talde horretan arrazoi bategatik edo besterengatik desegokitasunik sortzen denean, desafinatu egiten da. Ez dago besterik, nahiz eta askok, maliziaz edo, ez dauden esplikazioak bilatu nahi izan. Adibide bat jarriko dizut: igandero Iruretak hamaikakoa egiten duenean, bere ustez partidu horretarako gehien balio duen

jendea hartzen du. Momentu honetan Kultura sailburuak esku artean ditugun gauzak egiteko ekiporik onena aukeratu du.

Kirol munduko ardura ere baduzunez, noizko Euskal Herriko kirol selekzioak?

Euskal Herrian kirolak garrantzi handia dauka, arlo askotan zatikatuta agertzen zaigun herri honetan kirola da gehien batzen gaituena.

Pilota alorrean, Euskadiko federazioko lehendakariak eta hiru lurraldekoek hitzarmena sinatu dute. Garrantzitsua da. Gure sailaren eginkizuna hori da, kirolaren inguruan, helburu jakin batzuen inguruan,



Jose Mari Agirrek dioenez, administratibotik ahalgintxo polita egin da azken urteotan ikusentzutekoen alorra suspertzeko.

jendea taldekatzea. Selektzioarekin gauza bera; batik batik bat pilota eta herri kirolen

kasuan helburu bat da eta ezin dugu alde batera utzi. Helburu hori lortzeko or-

« Zerotik hasi beharko bagenu, orkestra bakarra defendituko nuke. Bi daude ordea, eta bakoitzaren atzean ondare bat, giro bat dago sendoturik »


dea, gauzak egoki erabili behar dira, ahal diren sektore gehienak bildu behar ditugu eta inolaz ere ezin dugu lan hau jendea zatitzeko eta gure artean dagoena baino zatiketa handiagoa lortzeko instrumentalizatu.

Euskadiko Orkestra eta Bilbokoaren gainean adituen batzorde batek esandakoak kaleratu dira. Egindako lanean ez da zalantzan jartzen bi orkestrek jarraitu behar dutenik. Dagoen eskaera eta mantenurako gastuen arteko desoreka ikusirik, ez al dira gehiegizkoak bi orkestra?

Hipotesi bezala, zerotik hasi beharko bagenu, bakarra egitea defendituko nuke. Bi dauzkagu ordea, eta bakoitzaren atzean giro bat dago, ondare bat. Ez dirudi bakoitzaren inguru horretan prest egongo liritekeenik ez bata ez bestea desagertzeko. Beste bide bat bilatzea errealistagoa dirudi.

Bide horretan, bien arteko koordinakuntza askoz ere nabarmenagoa izan behar duela argi dugu, egokitze prozesu bat eman beharko dutela, bakoitzaren tamaina berraztertu beharko dela, merkatuak definitu eta nola bata hala bestearen finantziazioa zer erakundetatik eramango den argitu.

Epe erdira begira helburu batzuk markatu beharko di-



«Pilota eta herri kirolen selekzioak lortzea alde batera utzi ezin dugun helburua da».

ra eta gizarteari esplikatu zertan ari garen; beharbada zaleak ugaldtu beharko dira eta beti administrazioari begira egon gabe sektore pribatutik datozen finantziazioak astindu; badago zer eginik.

Ikus-entzunezkoen alorra gabezia larriez ari dela azaldu du Ikeri etxearen ikerketak. Ez al dute ikerketako datuek urteotako zinemagintza politikaren porrota adierazten?

Ez nuke porrota esango. Helburua sektorea tinkotzea da, eta horretarako administrazioak bultzatu, lagundu egin behar du. Moduak alda daitezke, une bakoitzak hala eskatzen duelako, baina aldatzeak ez du porrota adierazten berez.

« Museoen Plan Nazionalako hamaika museoek hitz egitea gehiegikeria da; epe ertainean ezin zaie guztiei heldu »

Administratziotik azken urteotan ahalegintxo polita egin da sektore hau suspertzeko. Sektorea bizkortu egin da, eta horretan ETBk zeresan handia izan du.

Gure galdera nagusia hau da: zer egin dezakegu administrazioak dituen baliabideekin errentagarritasun handiena lortzeko? Koprodukzioari heltzea bada, aurrera! Baina, ez dirudi, oraingoz behintzat, uste zen bezalako etekinik eman duenik koprodukzioak; sektoreak ez du gainera argi ikusten.


Guggenheim aurrera doa, baina Museoen Plan Nazionala deitu duzuen zertan da?

1994an aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean Museoen Plan Nazionala eta bertan

hamaika museo, fase ezberdinetan daudenak, aipatzen ziren. Une honetan hamaika museoek hitz egitea gehiegikeria izan daiteke. Urrutira begira, bale! Epe motzera eta ertainera begira ezinezkoa da. Gu lau museorekin ari gara lanean: plan honetako pieza nagusia den Guggenheim; Bilboko Arte Ederren Museoa, eta maila berean Arabakoa; eta Donostiako San Telmo. Hauek guztiak aurreratzen direnean etorriko da bosgarren bati heltzeko garaia.

Sendoturik edo dauden bainbat proiektutarako Kulturatik dirua eskaintzen den bitartean, kulturgintzan dibarduten erakundeentzako aurrekontuak oso murrizturik datozen iritzia zabaltzen ari da kalean.

Urtebete daramagu Kultura Sailean eta lehenengo unetik argi izan dugu ohiko kulturgintzari tokatzen zaizkion baliabideak ez di-



«Ohiko kulturagintzari tokatzen zaizkion baliabideak ez ditugu beste ezertarako baliatuko». (Argazkiak: Alberto Elozegi).

tugula beste ezertarako baliatuko. Ekimen eta proiektu mardul eta handientzako diruak beste leku batzuetatik bilatzen saiatu gara, hortik pezeta bat kendu gabe. Izan ere, txistulariei ehun mila pezeta kenduta kalte egiten diegu eta horrekin ez dugu Guggenheim edo Kursaalaren arazoa konponduko.

Geroz eta diru gutxiago dagoela esaten da bestetik, eta hori ez da egia, lehen adina diru dago, agian zertxobait gehiago. Zera, duela hamar urte diru gutxiago egongo zen Kulturaren, baina dena estreinatzeko zegoen. Orain, askoz diru gehiago egonda, diru horren % 95 bahituta dago, preso. Gauza berriei aurre egiteko dirua oso gutxi da. Sekulako lo-

turak sortu ditugu ekintza kultural eta administrazioaren artean, eta ekintza piloak, urteak joan urteak etorri, administrazioetik zintzilik jarraitzen du.


Honen aurrean, ahalegin handia egin nahi dugu, bai kirola bai kulturarentzat finantziario bide berriak bilatzeko. Gure helburuetako bat da sektore pribatutik etor daitekeen diruari bideak irekitzea. Tresnak jarri behar dira ordea; nola? Mezenasgo edo fundazio lege erakargarri batekin, pizgarri fiskalen erabilera egokiaz... Hori da helburu handietako bat. Modu honetan bakarrik aurre egin ahal izango diogu eskaerari.

J.J. PETRIKORENA




La Casa del Café

— Juan Iriando, S.A. —
D O N O S T I A



L I B U R U A K


«HIZKUNTZ
PLANGINTZA»

STEE-EILAS (EHU)
EUSKAL Autonomi Elkarte-
ko herri-administrazioetako

hizkuntz eskakizunen lehenengo plangintzaldia amaitu ostean, azken bost urteotan egindakoaren azterketa eta hurrengo plangintzaldirako proposamenak plazaratu ditu EHuko STEE-EILASEk.

Oraindik ere zehaztu gabe dagoen bigarren faseari begira bestalde, lehenengoan sartu ez diren hainbat alor ere ukituko direnez, EHuko irakaskuntza eta ikerkuntza sailak adibidez, horien gaineko iradokizunak luzatzen ditu.

Lagungarri gisa, Hizkuntz Politikari buruzko liburuskak eta komikia dakartza aldizkariak ●

«ZURIAN ZIRIKA»
PATZIKU PERURENA
ELKAR, 177 or.

«Euskaraz ari den mikro-mundu finigaitz hauxe duzu nere unibertso, paradiso eta infernu bakar liluragarria, eta neure bihotzeko inguru honetan haur bat bezalaxe harritzen, gozatzen edo haserretzen nauzu edozein huxkeriarekin. Harri kozkor baten egoera nonahiko paretan...», halaxe dio autoreak artikulu bilduma honetako mamia definitzerakoan. 74 bildu ditu guztira, hari sueltoan, han eta hemen idatzi dituen artean gustukoena: «Edozein huskeria aski dut, oroime nez eta ederminez egunetan gogoetan aritzeko» ●

GOTZON GARATEREN BEGIETAN

Euskal Hiztegi Entziklopedikoa

Astero astero heltzen dira jende tartera Euskal Hiztegi Entziklopedikoaren atalak. Ni ibiltzen naizen baserrietan haurrak ez ezik, nagusiak ere zain egoten dira, noiz eskuratuko.

Lur eta Elhuyar argitaletxeek urrututako bide argitsuari jarraitzen zaio orain entziklopedia hau. Euskara aberasten eta euskaldunon buruak janzen lan bikaina egin dute eta egiten ari dira entziklopediok.

Geure haurtzaroen holakorik izan bagenu! Eskolan euskara debekatua genuen eta irakurtzeko ere gauza gutti zen. Do-triña, «Zeruko Argia» eta etxeko zokoren batean amaraunetz bildutako liburu zaharren bat. Denbora txikian urrats handiak egin ditu euskarak.

Azken entziklopedia honetan eta aurrekoetan ere huts seinagarri bat ikusten dut, halere. Euskarari dagokio.

Askotan irakurtzen ditut honen antzeko izen sintagmak: 'musikari italiarra', 'gizon azpeitiarra', 'iraultzaile amerikarra'... Izen

sintagma hauek eta horien antzeko guztiak oker daude.

Testurik zaharrenek eta gure gurasoek (gure etxekoak joan den gizaldeko giputz osoak ziren) bestaldera erabili izan dituzte. Eta egungo egunean ere, ni ia 30 urtean nabilen zazpi probintzietako baserrietan salbuespen bat ere gabe honelaxe esaten dute: Azpeitiko gizona edo azpeitiar gizona, Larrañeko gizona edo Larraintar gizona, Idiazalgo gizona edo idiazabaldar gizona, Urberoagako gizona edo urberoagatar gizona, Xiberuko emaztekoa edo xiberutar emaztekoa, Italiako andria edo italiar andria, Goizuetako artzaia edo goizuetar artzaia, Frantziako euskalduna edo frantses euskalduna, Espainiako euskalduna edo español euskalduna.

Klasikoetan ere gauza bera ikusten dugu. Leizarragak 'israeldar gizona' darabil. Oraingo beste molde horiek, 'gizon israel-darra' eta antzekoak berriak dira eta inongo zalantzarik gabe oker daude.

«EUSKAL HIZTEGI
ENTZIKLOPEDIKOA»
«EUSKALDUNON
EGUNKARIA»

Egia da izen propioa denean herriak gentilizioa atzean ipintzen duela: 'Pedro azpeitiarra', 'Inazio ondarrutarra'. Eta orduan ongi dago. Orduan bakarrik, ordea.



**«ERRUSIAR
HATZAPARRAK
KAUKASOAN»**

GABIREL EZKURDIA ETA
ANDONI GOROSTIAGA
IPES, 20. ZKIA.

Gaurkotasun handiko gaia jorratu digute Gabriel Ezkurdia eta Andoni Gorostiagak, Sobietar Batasun ohitik berezitako Kaukasoko errepublikaren egoera zertan den.

Aipatzen dutenez, informazio ugari kaleratzen da nazioarteko gaiet buruz, baina benetakoa, potentzia multinazionalak maneiatu gabea, oso urria da.

Egoera honi erantzun asmoz, iaz, urtarriletik maiatzera bitartean mintegiak antolatu zituen IPESek, eta hauetan jasotako ekarpenak bildu dituzte liburuan ●

**«BERTSOLARIYA»
«LAU HAZIETARA»
EUSKALDUNON
ELKARTEKO XENPELAR
BERTSO ESKOLA
1995EKO ABENDUA**

Juan Jose Makazaga Mendiburuk sortu zuen aldizkaria 1931. urtean, eta urtebeteko epean 54 ale kaleratu zituen. Gerora desagertua, 1990eko abenduan berrargitaratzeari heldu zion Xenpelar Bertso Eskolak, eta sei ale osatu ondoren, agur esateko garaia heldu dela iritzi dio, gerra aurreko bertsolaritzaren historiari erreposoa eman eta gero. Berezia dator azkena, aldizkaria sortzailearen inguruan. Omenaldia egiteaz gain, Xenpelarrekin hasi eta Txiritaren garairaino gure herrian jaio eta bertan bizi izan diren 19 bertsolarien biografiak dakartza ●



**«K.P. KAVAFIS»
ANDOLIN EGUZKITZA ETA
OLGA OMATOS
PAMIELA, MARULANDA,
124 or.**

Poeta greziarra ezagutu zuen Nikos Kazantzakisek hala dio: «Kavafis kultura baten azken loreetariko bat da; behetitze eta gainbeheraren gizon apartekoaren ezaugarriak oro dauzka: jakintsu, hedonista, edertasun eta plazerraren maitale, gometez bete. Florentzian jaio behar izan zukeen XV. gizaldian, aitasainduaren kardinal edo kontseilari segetu, edo eta Venetziako duxen jauregian, kanaletan edanez, amodio eginez, idatziz». Grezieratik zuzenean itzuli dizkiote poemak. Hitzaurre eta bibliografia batek autorearen xehetasunak dakartza gainera ●

**«LAZKAO TXIKI»
JOXANTONIO
ORMAZABAL
ELKAR, XAGUXAR, 91 or.**
Lazkao Txikiren bizitzako zenbait zertzelada, berak kontatutako txiste eta pasadizoak eta zenbait bertso aurki daitezke eskola eta ikastoletako ikasleei eskainitako liburu honetan.

Sendoa argialetxeak argitaratutako «Irriz eta malkoz» liburua hartu dute oinarritzat, beti ere haur eta gaztetxoek mundura begira egokitu dituztelarik testuak.

Aparta genuen Lazkao Txiki, eta horren testigantza ematea izan dute helburu, bere pozak, penak eta umorea nola erakusten zituen adieraziz. Denetarik dago beraz, liburuan, nahiz eta umorea nagusitu ●




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



«CRONICANDO»
MIA COUTO

TXALAPARTA, 195 or.
1955ean Mozanbiken jaioa, bertako errealtate kontrae-sankorra, magikoa, bizia, arraza anizduna hartu du gaitzat autoreak kronika laburren moduan tolestu duen liburu honetan.


Medikuntza ikasi zuen Mia Coutok. Independentzia erdietsi ostean, gertaerei hurbiletik jarraitzea deliberratu eta, kazetaritza munduan hasi zen, «Noticias de Maputo» egunkariko zuzendari egin zutelarik, 1981ean.

Eskuetan dugun liburua 1991n argitaratu zuen. Aurretik, «Raiz de Orvalho», «Vozes anoitecidas» eta «Cada homem é uma raça» tituluak plazaratu zituen ●

«SUBELTZA»
IPAR RAP-EROAK
MAKETA

Karlos (bateria eta korduak), Iñigo (baxua eta korduak), Ion (esku soinuak eta korduak), Abel (gitarra eta ahotsa) eta Unaxek (ahots nagusia) osatzen dute Legazpiko Ipar Rap-Eroak taldea, eta beren bigarren maketa plazaratu dute. Sei abestiz osatua dator: «Subeltza», «Drugs», «Errudunak», «Norekin», «Figh» eta «IRE irratia». «Intro» izeneko sarrerako doinu bat gehitu diote eskaintzari.

Aurrekoan bezala estilo ezberdinak jorratu dituzte, dela *rap-metaleroa*, *funky*-a, *trikitixa*, *ska*... Bilboko Rock estudioetan grabatua da, Karlos «Creator»-en eskutik. Taldea arduratu da ekoizpenaz ●



«LEKUKO BAKARRA»
ZUZENDARIA: PETER
WEIR. AKTOREA:
HARRISON FORD ETA
KELLY MCGILLIS
PARAMOUNT, 1985


Peter Weir zuzendariak oso pelikula originala eta suspentsez betea filmatu zuen Amish izeneko sektaren inguruan. Sektaren baitako gertakari oso larri batek zeltan jartzen du polizia (Harrison Ford), zeinak haur baten laguntza (Kelly McGillis) izango duen haria askatzeko orduan.

Aktoreen lan bikaina eta musika dira aipagarri. Lu-zemetriak bi Oscar lortu zituen 1985an. Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailaren ekimenaz euskaratu da ●

«TANTAK»

EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO
HEZKUNTZA ALDIZKARIA
1995EKO ABENDUA

Hamalagarren alera heldu da «Tantaka», ohizkoa duenez artikulu bilduma eskainiz. Begoña Martínez, Virginia Perez-Sostoa eta Javier Galarreta hirukoteak «Laguntza-zerbitzuen bilakaera eta lanbide-perfilak EAEn» lana aurteztu dute. Lander Sarasola eta Luis Maria Naya eskolatik lanerako bidea zabaltzen duten gizarte-garantiako programen gainean mintzatu dira. Euskararen jabeak dela eta, jakin eta beste aditz trinko batzuen eraginkortasunaz arituda Andoni Barreña. Haue-z gain, beste hainbat artikuluk ere jasotzen dira ●



**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

ANTZA
Maisuen Eskutik

**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

Zirkuitu ibilbidea, 1 eta 2 ☎ 37 15 45 - Faxe 37 34 03 • Lasarte Oria 20.160



ETBk azken urteko autore eskubideen tasak ez ditu ordaindu. (Arg: A.Elosegi).

Egile bakoitzari berea

Telebistan ikusten edo entzuten dugun edozer gauzak du egilea. Egile horrek bere lanaren erabileragatik ordainsaria jasotzen du. Dagokion diru kopuru horrek ordea, hainbat gatazka eragiten ditu telebista eta SGAEren (Espainiako Autore Elkartea) artean. Oraingo honetan ere, ez daude gauzak guztiz bare, azken urtean beharrezko kanonak ez baititu ordaindu oraindik Euskal Telebistak.

LAN bakoitzak bere egilea du, eta egile bakoitzak bere eskubideak. Horretan datza SGAE (Espainiako Autoreen Elkartea) izatearen arrazoia; egileari bere lana erabiltzen duten bakoitzean, dagokion kanona zenbatekoa den, eta hori kudeatzean, alegia.

Euskal Telebistan, duela sei zazpi urte hasi ziren autore eskubideak kontuan izaten, ETBko emisio eta aurkezpeneko buru den

Andoni Aranburuk agertzen duenez, *«ordura arte sentsibilitate falta zegoen, eta arlo ekonomikoak ere arazo ugari planteatzen zituen. Bestalde, neurketa lana ere oso lan nekagarria da. Saio, telesail, sintonia edo telebistako beste edozein lanen egilea, gidoigilea eta musika arloa dira SGAEkoak gehien kezkatzen dituenak. Goenkale-ko Bar Sobian, adibidez, Txapasek jartzen*

duen musikak hamar segundutik gora irauten badu, ETBkoek kontuan hartu eta gero autore elkarteari deklaratu beharrean dira. Galbahe hau igaro beharrik ez dutenak kanpoko produkzioak dira, bakoitzak bere herrialdean ordaintzen baitu kanona. Beste arlo batzuetan ez dira hain zorrotzak, esate baterako, bikoizleari dagozkion egile eskubideak maiz ez dira kontuan izaten.

Egileei ordaindu beharrekoa telebistaren aurrekontu eta publizitate sarrearen arabera erabakitzen da. Eta hau da orain dituzten arazo guztien gakoa, ETB eta honekin batera FORTAko beste telebista kateek, bi diru iturri dituztenez, biak hartzen dituzte kontuan autoren elkartekoek. Baina telebista kate pribatueta publizitatek dute diru sarrera, beraz, horren arabera jasotzen dute egileek. Azken hauen egoera berdina lortu nahian dabilza FORTAkoak, hau da, publizitatearen arabera ordainketa egitea alegia. Tirabira honetan daude oraingoz ETB eta SGAEkoak.

Seihilero ordaintzea dagokie ETBkoei, baina SGAEk Bilbon duen Karmelo Labiroa ordezkariak esan digunez azken urtebetean ez dute Euskal Telebistakoen sosik jaso. Ez digu argitu zenbateko dirutza esan nahi duen horrek, baina Andoni Aranburuk esanikoaren arabera, urtean 100 milioi pezetatik gorako tasa izan ohi da gehienetan. FORTAK zor duen kopurua jakina da, 600 milioi pezeta (40 milioi libera). Andoni Aranbururen hitzetan, *«SGAEkoek prepotentzia handiz jokatzen dute, beraien erabakitzen dute zenbat oraindu behar zaien. Gauzak merkatuan daudenean eta kompetentzia dutenean jakiten da zenbat balio duten, autore eskubideak planteatzean ordea, ez dakizu ziur zertaz ari den»*. Bien bitartean autore eskubideen elkartekoek dagokiena ordaintzeko eskatzen dute; bakoitzari berea, SGAEren legea.

ARRITXU ZELAIA

Manu Arrasate: «Askotan, intuizioz egin behar ditugu zuzenketak»

Manu Arrasate Euskal Telebistako hizkuntz kontroleko arduraduna da. Azken urteetan Lakuan Kultura Saileko itzultzaile lanetan aritu bazen ere, telebista ez zaio arrotz. Albistegietako euskara zuzentzaile izana eta berauetarako estilo liburuaren sortzaileetakoa da.

Hizkuntz kontroleko arduradunaren lana, emittitu aurretik edo ondoren basten da?

Lehenago hasten da. Baina telebistan ditugun atal ezberdinak kontuan izan behar ditugu, horien arabera antolatzen baita lana. Albistegietan aurretiaz egiten da ia lan gehiena, kazetariaren testua zuzentzaileak aztertu eta orraztu egiten du. Zu-

zeneko emanaldietan ezinezkoa da, emanaldia bukatu ondoren egiten dugu horrelakoetan. Kanpo produkzioan bikoiztetzeeekin batera egiten dugu lana, prozesu osoa, gidoiaren itzulpenetik azkenean bikoizketa egin ondorengo dramatizaziora arte begiratzen dugu.

Abozkotasunak zein zailtasun ditu?

Zailtasun handiak ditu, batez ere gauza gutxi dagoelako eginda arlo horretan. Hiztegiak asko landu dira, gramatika ere asko aurreratu da. Ahoskeran irizpide nagusiak eman dira, baina gero galdera batek, edo egoera batek zein doinu behar duen, edo beste gauza asko eta asko daude oraindik zehaztu gabe. Horregatik askotan intuizioz zuzentzen ibili behar dugu. Baina lan handia egin da, eta orain dela hamar urteko filme bat eta oraingoa hartuz gero, dagoen aldea igartzen delakoan nago.

Euskalkiek ba al dute lekurik?

Euskara batuaren barruan dutena. Hasieran jendeak, erratuta, batua euskalkiez aparteko gauza zela pentsatu zuen. Baina, gero argitu da, batua batzea dela. Euskalki bakoitzak eman dezake bere altxorra alor guztietan.

Askotan, kazetariak euren euskalkiko sintaxi edo esamoldeak baztertzeko dituzte, batuak onartzen ez dituelakoan, eta ondorioz beste eredu batzuk hartzen dituzte, gipuzkoarrarenak gehienetan. Kazetariari, ahal izanez gero, aberasteko esaten zaio.

TXORI BATEK

ESAN DIGU


Hamar pezeta ordu bakoitza.

ETBk atera duen 1995eko txostenaren arabera, ikusten dugun ETBko ordua 10 pezeta kostatzen zaio EAEko biztanle bakoitzari. Txosteneko hitzen arabera-oso eskaintza interesgarria eta benetako kontsumo gastu txikia da. Baina, kontuan izanik batez beste egunero 20 ordu emititzen direla, eguneko 200 (8 libera) pezeta eta urteko 73.000 pezeta (2.920 libera inguru) kostatzen zaio biztanle bakoitzari. Beraz, kuota ordaindu behar den zenbait telebista kate pribatutako kuota ordaintzea baino garestiagoa da.

Aktore berria «Goenkale»n

Pilar Rodriguez aktore andoaindarra da, «Goenkale»-n ikusiko dugun aurpegi berria. Amaiaren ama, Petra izango da. Dagoeneko grabatuak ditu atal batzuk, bere alabarekin gaizki konpontzen den amaren paperean.

Aktore hau ezaguna da lehenago ere bai antzerkian baita telebistan ere, «Bi eta bat» eta «Penelopenea» telesailetan agertu zen. Egun Euskal Telebistakoarekin batera «Zu (t) gabe» antzezlanean ere badabil.



Hizkuntza maila asko hobetu delakoan dago Manu. (Arg: A.E.)

ARRITXU ZELAIA



■ «Komikia 9. artea» Imanol Uriberen dokumentala

«Komikia, 9. artea» Imanol Uribe zuzendari ezagunak eginiko lan honetan atalez atal komikiaren historia agertzen digu. Hasi XX. mendetik eta gaur egunera arte munduan zehar izan diren komiki pertsonaia eta egile ezagunak tartekatuko dituzte dokumentalak irauten dituen 13 ataletan. Kapitulu batzuk eman dituzte jada, ostegunean 9. atala izango da eta urtarrilaren 31n 13.a, eta beraz, azkenengo atala. Egunero arratsaldeko 16.20etan.

■ «Teech» irakasle gaztearen gorabeherak

«Euskadi Gaztea» saioan barne eskaintzen dituzten telesailen artean ostiraletan «Teech»-en txanda izaten da. Teech Gibson Filadelfiako kaleetan hazi zen irakasle gazte beltza da. Hiri barruko eskolatan musika klaseak ematen zituen eta gustora zebilen baina aurrekontuen murrizketek lanbide hura uztera behartu zuten. Handik Winthro akademiara bidali zuten, antzinako itxuradun barnetegi politera, baina bertako ikasle guztiak mutilak eta gainera zuriak dira. Aste honetako atala «Hondoratu ala igeri egin» deiturikoa izango da. Ostirala 26, 15.35etan.

■ Zuzendari ezagunen filmak larunbat eta igande gauerako

Larunbatean «Zine Oro» sailean Pedro Olearen «Ban-

dera Beltza» eskainiko dute. Alfredo Landa, Virginia Mataix eta Imanol Arias moduko aktoreak eta Bilbo inguruan girotutako istorioa ikusteko aukera izango da larunbatean. Hurrengo egunean, hau da, igandean, Paul Verhoeven zuzendariaren «Flesh and blood», XVI. mendean girotutako abentura filmea izango da. Larunbata 27, 22.30etan eta igandea 28, 21.35

■ «Txiskola», Euskadiko 2. txiste liga.

Lehenengo txiste liga Abadiñotarrek irabazi ondoren, bigarren liga hasi da. Kike Amonarrizek aurkezten duen saio honetan, oraingoan ere, abesti, esketx, aproba intelijentea eta ganbara zunba zunba moduko txisteek astelehen gauetan jarraituko dute. Astelehena 29, gaueko 22.00etan.



Z A P P I N G

Kanal Oneko programazioan berrian elkarrizketa tarreak nagusi

ANDOAINGO telebista den Kanal On-ek hurrengo hiru hilabeterako programazioan aldaketak egin zituen joan zen astean. Bai saio berriak, bai urte gehiago daramatzatenak izango dira Andoaingo etxeetako pantailetan.

«Kanal On Txiki» da berrikuntzetako bat. OHoko hirugarren mailatik hasi eta zazpigarrena bitartean dauden haurrak dira saio honetako partaideak. Ikasgela bereko haurrak, «Trivial» eta «Pictionari» eta izena asmatu beharreko jokoetan parte hartuz irudiek girotuko dute lehiaketa. Astelehenetik ostiralera, asteazkenetan izan ezik, arratsaldeko zazpitan

izango du lekua haurren arteko nor-gehiagokak.

Hamar aste iraungo du «Herria Galdezka» elkarrizketa saioak. Herriko politiko ezagunak dira saioko elkarrizketatuak, astero batek erantzungo die Maribi Olano aurkezlearen galderei, eta herritarrek telefonoz eginiko galderei. Urtarrilaren 29an, PPko Juan Carlos Cano zinegotzia izango dute gonbidatua. Elkarrizketatuak aukeraturiko hizkuntzan egin ohi da astelehenero zuzeneko saioa.

«Mete-gol» saioak bost urte daromatza antenan, asteartetako kirol saio elebidunak Andoainean asteburuan izandako kirol gertakizunen garran-

tzitsuenak jasotzen dituzte. Elebiduna da «Kultur Haizea» elkarrizketa saioa ere, ostegunetan herriko talde ezberdinetako partaideak izango dituzte platoon.

Hauek guztiak, eguneroko albistegien aurretik eta ondoren izaten dira. Hamar minututako albistegiak «Herria Galdezka» saioa aurkezle beraren ardurapean eratzten dira, egunero Maribi Olanok aurkezten ditu herriko berriak. Bai, albistegietan, bai beste saioetan ere ekipo teknikoa Andoaingo zinema eta bideo eskolako ikasleek osatzen dute.

Ordu batean berriro errepikatzen dira aurreko eguneko emanaldiak, asteburuetan izan ezik. Eguneko hogeita lau orduetan ez dute emisioa eteten, satellite bidezko musika edo kirol saioak izaten baitira antenan.

Garai oparoen txanda Zazpiki Irratian

Elgoibarko Zazpiki Irratiak irrati librea izaten jarraituko du. Nahiz eta Zazpiki kultur elkarte sortzeko prozesua hasi, hamaika urte daramatzen irrati honetan ez da aldatarik izango. Elgoibartar guztientzat atek irekita egongo dira.

HAMAIKA urte pasa dira Zazpiki Irratiaren uhinak Elgoibar osora zabaltzen hasi zirenetik. Hamaika elgoibartarren ahotsak entzun izan dira irrati libre honen gaurdainoko bizitzan. Eta ordutik honako ibilbidean une onak igarotzeaz gain, hamaika arazo eta ustekabe jasan behar izan dituzte, egoera arras ezberdinetan murgilduta ibili izan dira. Gaur egun ordea, irratiak aurrera ateratzeko asmoz, material inbertsioak egin di-

tuzte eta aurrerapausu hauen bidez emisioen kalitatea hobetzea dute helburu.

Hala ere, Zazpiki Irrati librea prozesu berri baten aurrean dugu egun. Aurten beteko dituen hamaika urteak ospatzeko edo, Zazpiki kultur elkarte sortzeko pausoak eman dituzte. Manu Egea bertako kideak adierazi digunez, «komunikabide batzuetan agertu da legezatzeko prozesu batean sartu garela, baina bori ez da borrela. Orain arte ez



Zazpiki Irratian berrogeita hamar gazte inguru dabilta eta astean zehar 30 orduko emisioa egiten dute. (Arg: A. Elozegi).

ginen ez legalak ez ilegalak, alegalak baizik. Egungo legedian irrati libreek ez baitute lekurik. Guk irratiaren gestioaz arduratuko den kultur elkarte berri bat besterik ez dugu sortu.

Elkarte berri honen sorreraz, udaletxetik laguntza ekonomikoa jasotzeaz gain, udaletxearenak diren erai-

kuntza ezberdinak erabiltzeko aukera izango dute. Hala ere Zazpiki Irratiak, irrati libre izaten jarraituko du Egearen ustez, «gure irratiaren edonork azaldu abal izango ditu bere ideiak eta praktikan ez da ezer aldatuko».

JOSU ARANBERRI

B A G A K

■ Euskadi Irratian kirola eta egunerokotasuna nagusi


Euskadi Irratian hainbat kirol emanaldi izango dira aste honetan. Hasteko, asteazkenean Athletic-Real Madrid, eta Real Sociedad-Sporting futbol partiduak zuzenean eskainiko dituzte. Egun berean Bidasoa eskubaloitaldeari Pragako APC taldearen aurkako partidua jokatu du, eta honen berri ere zuzenean emango dute.

Asteburuan, 27an, Abadiñoko ziklokrosean gertatzen dena azalduko du Xabier Usabiagak eta beste horrenbeste egingo du igandean Ispasterreko

ziklokrosarekin. Igandea kirol eguna izan ohi da, horrela da urtarrilaren 28a ere. Lasarteko krosa, esku pilotako binakako finala, eta ligako Real Sociedad-Sevilla eta Athletic-Athletico de Madrid futbol partiduek lekua izango dute Euskadi Irratiko emanaldietan.

Kirolez gain bada bestelakorik, larunbatean Bertso Eguna izango da Donostian, eta egun berean ez baldin bada ere, astelehen gauean Nikolas Aldairen Bertso Festa irratsaioan tartea eskeinita diote. Bestalde Gregorio Ordoñez hil zutenaren urteurrena dela eta jarraipen berezia egingo diote gai honi

AURPEGIA



Alain Salterain (Durango Irratia)

Oraindik kazetaritza ikasketak egiten ari bada ere, lauzpabost urte igaro dira Durango Irratian bere ahotsa jartzen hasi zenetik. Hasieran musika programa, ondoren informatiboak, eta orain

«Lapiko» izeneko magazina. Egun, programa ezberdinak eginez, programazioko eta musika arloko arduradun izatera iritsi da.

Magazinak ditu gustuko. Bere ustez, elkarriketek, erreportaiek eta zuzeneko konexioek bizitza ematen diote programa bati. Hala ere arlo bakoitzak ezaugarri eta xarma ezberdinak dituela aitortzen du.

Irratiak gauza ugari eskaini dizkio. Informatzerakoan informazioaren parte sentitzen da, komunikabide batean lan egitea oso garrantzitsua dela ohartarazi dio.

URTARRILAK
26
ostirala

«ROMEO Y JULIETA»

Ur antzerki taldeak William Shakespeareren «Romeo y Julieta» obra taularatuko du gaur, bihar eta etzi Barakaldoko antzokian, arratseko 20:00etatik aurrera. Bertsioa eta zuzendaritza Helena Pimentarenak dira.

AHT-REN AURKAKO ASTEA

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak Tolosan antolatutako AHTren Aurkako Astearen barruan, gaur 20:30etan Alegiako gaztetxean **zagiardoa**; 22:30etan kontzertua: **Señor No eta talde sorpresa**. Bihar, **AHTren kontrako mahaia** Tolosako Trianguloan. Etzi emango zaio amaiera asteari. 9:30etan **mendi martxa**, Billabonako tren geltokitik; 14:30etan, **bazkaria** Tolosako Oargi elkarteetan; 18:30etan, **berri**, **kalejira herrikoia**.

XIRRIXTI-MIRRIXTI KANBON


Xalbador ikastegiaren eskutik, Xirrixti-Mirrixti antzerki taldeak «**India beltzak**» bere azken lana taularatuko du gaur 21:00etan Kanboko antzokian.

DANTZA KOREOGRAFIAK

Gaurtik hilaren 28ra bitartean, **Carmen Cortesen «Yerma» dantza koreografia** ikusi ahal izango duzue Donostiako Victoria Eugeniaren. Ikuskizunak iluntzeko 20:00etan izango dira, Donostiako Udal Kultur Patronatuak antolatua.

IKASTAROAK GETXON

Getxoko Kultur Etxeak hiru ikastaro antolatu ditu: **bideo-kameraren erabilerarako prestakuntza**, es-



Eibarko Narruzko Zezen antzerki-artikulu eta gidioentzako lehiaketa martxan da. Idazlanek, euskaraz zein gaztelaniaz, antzerkiarekin zerikusia duten gaiez izan beharko dute; egileak ikusitako edozein antzerki ikuskizunaren aipamena edo kritika... Lanak gutxienez bi eta gehienez hiru orrialde izango ditu. 25 urtetik beheragoko edozein gaztek parte har dezake, bakoitza bere adinari dagokion sailean. Lanak Eibarko Egoiz Zentrora igorri (Otaola Hiribidea 29, 20600) otsailaren 15a baino lehen.

Sos portutik Barara bizikletaz (I)

Aste honetan, bizikleta-ibilaldi zoragarri baten lehen etapa proposatuko dizuegu, datorren astean segida izango duena. 135 kilometroko ibilaldi honek, Pirinio-aurreko mendi-multzo ezberdinak ezagutzeko modua eskainiko digu.

Lehenengo etapa honetan, 65 kilometro luzekoa, Santo Domingoko (Zaragoza) mendi-zerra luzea gurutzatuko dugu, San Juan de la Peñako urtegiara jaisteko.


Ibilaldiari Sos del Rey Católico eta Uncastillo artean dagoen Sos portuan ekingo diogu, lehenengotik 11 kilometrorara. Errepidetik ezkerredera dagoen pista hartuko dugu, eta 400 metro au-

rrerago Petillara jaisten den beste bat utziko dugu ezkerredera. Eskuinekotik jarraitu, Pico Selvako (1.159 metro) mendi-hegalean gora doanetik. Igoera eta jaitsiera leunetan barrena, pistarik argienari jarraiki, ekialdera segituko dugu. Jaisten hasiko gara, gurutzebide batera heldu arte. Ezkerrean bidea hartuko dugu, beste isurialdera igaroz. Etxalde batzuk eskuinera utzi eta beherantz jarraituko dugu, Santa Quiteriako ermitara eta Torres de Sibirinara (paraje bitxia berau) heldu arte.

Pista beretik jarraituko dugu, eta errekaen norabideari jarraiki Sibirinako etxera iritsiko gara. He-

mendik Collada Pinarako bidea egin beharko dugu. Honetarako, ezkerreko pista alde batera utzi, eta mendi-hegalean barrena gora egingen duen eskuinekoari eutsi beharko diogu, kasik txikituta dagoen bordara arte.

Hementxe txirrista antzeko batzuk hasten dira, 12 kilometrotan luzatzen direnak, beste bidegurutze batera arte jaisteko. Pista nagusia utzi eta ezkerrekoari helduko diogu. Reacuba erreka gurutzatu, eta mendietzera igoko gara. Ataka



pare bat igaro eta bi isurialdeak banatzen dituen muiñoan izango gara.

Sei kilometroko jaitsierari ekingo diogu jarraian, Villalanguara heltzeko. Bertatik Pantano de la Peñara segi, gaua igarotzeko modua izango baitugu bertan ■

peranto hizkuntzaren irakaskuntza eta argazkilaritza (zuri-beltzeko laborategia). Matrikulatzeko epea hilaren 22an ireki zen. Lehenengo ikastaroa hilaren 30ean jarriko da martxan, bigarrenkoa bezalaxe, eta hirugarrenkoa otsailaren 5ean. Argibide gehiago nahi izanez gero, hots egin ondoko telefonotara: 491 21 23 edo 491 21 18.

«MENDIAREN HILABETEA»

«Mendiaren hilabetea»-ren barne, gaur arratseko 20:30etan, Angeluko Ibaialde batzokian, **espeleologiaren argibideak eta eztabaida** Ruben Gomez espeleologoaren eskutik. Filmea ere eskainiko da: «San Martiko harria».

ERAKUSKETA ERROMON

Urtarrilaren 22az geroztik, otsailaren 3ra arte, Erromoko Kultur Etxean **Antonio Soto Carmona artista berga-**

rarraren lanak ditugu ikusgai. Erakusketaren gune nagusia hamar koardok osatzen dute. Orduetgia: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara astegunez, eta 11:00etatik 13:00etara larunbatez.


URTARRILAK 27 KONTZERTUA LARZABALEN

Larzabalen kontzertua eskainiko du gaur gaueko 22:00etatik aurrera **Bost**

Gehio taldeak. Jarraian, **Xitoak taldeak** dantzaldia eskainiko du goizaldera artean.

KONTZERTUA LESAKAN

Lesakako Atxaspi Ostatuan kontzertua duzue entzungai gaur gauean. Bertan izango dira **Zai-Itxoiten** taldea eta **Mikel Markez**. Atxaspi Ostatuak antolaturiko kontzertu hau gaueko 20:00etan izango da.



Joan den urteko abenduaren 7az geroztik, Bilboko Arte Ederretako Museoan zabalik egon den «Jose Migel Barandiarani Omenaldia» erakusketa ikusteko azken eguna urtarrilaren 27a duzue. Lan hau hamalau irudi, hamar idazki, izenburu orri bat eta amaiera orri batez osaturik dago. Irudi eta idazki guztiak argitaragabeak dira eta omenaldi honetarako sortuak, Ruiz Balerdiren irudiak eta J. M. Barandiaranen bi idazkiak salbu.

M O K O F I N A

Sagardotegi garaian, oilaskoa sagardotan

Sagardotegiek ateak zabalitzen dituzten garai honetan, hona hemen sagardoa osagaitzat duen platera: oilaskoa sagardotan. Izan ere, sagardoa ez baita soilik edateko. Aitzitik, makina bat jakirekin erabil daiteke saltsak egiteko, eta bizitasun puntua ematen dionik ezin uka.

Plater hau prestatzeko, lehenik eta behin oilaskoa zatituko dugu. Izterrak, hegalak, bularraldea eta bes-telakoak ondo zatitu ondoren, oilasko zatiak gatzitu, piper-hautsa ere erabiliz. Pasa jarraian irinetan oilasko puska bakoitza.

Oilasko zatiak frijitu oliotan, ondo gorritu artean. Gorritu bezain pronto, atera

oilasko puskak eta gorde. Kanpoaldea gorritu arren, barrutik egin gabe egon dadila.

Aurretik txikitutako kilo erdi tipula jarri oilasko puskek frijitzeko erabili duzun zartagi berean, eta utzi egiten hamabost bat minutuz. Jarraian, gehitu tipulari pare bat baso sagardo, baso bete urekin batera. Bere horretan eduki tipula desegin artean, saltsa apur bat loditu arte alegia.

Prestatu berri duzun saltsa irabiatu. Ondoren, jarri sutan lehendik gordetako oilasko puska saltsa honekin batera, eta gehitu haragi salda. Su txikian ezarri oilaskoa, lehendik barrutik egin gabe zegoen oilaskoa



orain behar bezala egin dadin. Hogei bat minutu poliki egosten eduki ondoren, jateko moduan izango dugu.

Zerbitzatu mahaira, eta utsi oilasko izter, hegal,

lepo, bularralde eta gainontzekoei. Eta jakina, plateren duzenari laguntzeko sagardo botila pare bat lagun badituzu, ezin hobe. On dagizula! ■

ZIKIRO-JANA IRULEGIN

Irulegiko festen ekitaldien artean, gaur zikiro-jana izango da **Denen Etxea aretoan**. Ongi jan eta hobeto pasa nahi izanez gero, baduzue nora jo animazio bila.

SOROTAN BELE LASARTEN-ORIAN

Sorotan Bele talde hondarribitarra Lasarte-Oriako **Zulo tabernan** izango duzue entzungai gaur gaueko 23:00etatik aurrera. Beraz badakizue nora jo planik gabe bazaudete.

ANTZERKIA GETXON

Manuel Galiana eta Africa Gozalbesek «**Trato Carnal**» obra aurkeztuko dute Getxo Antzokian. Saioa ikusteko bi aukera, 20:00etan eta 22:30etan. Sarre-
ra: 1.000 pezeta (40 libera), 800 Gazte Txartela dutenentzat eta jubilatuentzat.

URTARRILAK
28
igandea

MASKARADAK ZUBEROAN

Zuberoan Epifania eta Bazko egunen arteko inauterietan egin ohi diren maskaradak aurten Muskildi eta Mithikile herriek prestatu dituzte. Gaurko egunez, **Muskildikoa Pagolan** izango da ikusgai, eta **Mithikilekoa Ligin**.

MUS LEHIAKETA BAIONAN

«Ekaitza» astekariak mus lehiaketa prestatu du gaurkorako Baionako Txiri Boga ostatuan. Txapelketa goizeko 10:00etan hasiko da, egun osoan luzatzeko.

URTARRILAK
29
astelehena

«GERRAK ETA BAKEA»

Iruñeko So de Paz, Gerrarik Ez eta Ipes elkarteek «**Gerrak eta bakea gaur-**



Urtarrilaren 27an Duzunaritzen (Nafarroa Beherea) «Gau Izar» emankizunaren grabaketa izango da, grabaketa publikoa hain zuzen. Izar nagusia Amaia Zubiria izan arren, Pascal Gaigne, Niko Etxart, Txomin Artola, Maite Idirin eta Erramun Martikorena ere gonbidatuta daude. Irulegiko Irratiak antolatutako supazter ondoan iraganen den gau goxo hau Tenoreko gela txikian izango da iluntzeko 21.00etatik aurrera. Emankizuna dohainik izango da.

L A N D A R E A K

Gurgurioa

Gurgurioa babarruna edo indabaren zomorroa deitzen zaion hori da. Bi familietako gurgurioak erasotzen dute gure babarruna, Bruchidae eta Curculionidaetarrek, alegia, baina gure lurretan kalteak eragiten dituzten gurgurio ezagunenak *Bruchus rufimanus* eta *Acanthoscelides obtectus*-a dira.

Izenez batere politik ez diren hauek, bata bestearengandik bereizten duten ezaugarri nabarmenak dituzte. *Bruchus*-arenak urteko belaunaldi bakarra garatu eta babarrun ale bakoitzean larba bakar bat haztea dira. *Acanthoscelides*-arenak urte betean belaunaldi bat baino gehiago garatzea eta babarrun hazi bakoitza

larba bat baino gehiagok eraso ahal izatea dira.

Gure babarrunetako apopilo ugariena, hala ere, *Bruchus*-a da. Bere zikloa soroan hasten da. Babarrun landarearen lore eta leka berri-berrietan gurgurio eme helduak arrautzak erruten dituenean. Gero, larba jaio berriak leka zulatu eta babarrun ale gazte, gordin eta biguina xixtatu eta barrura sartzen da. Larba honek babarrun aleak pilatzen dituen erreserbak janez hazteko ez du inolako gupidarik.

Babarruna udazken hasieran bildu eta ganbararatedo eraman eta negu hasiera arte gurgurio larbak metamorfosia garatzen du, intsektu heldua sortuz.

Intsektu honen ordurarteko bizitoki bakarra izan duen babarrun alea uzten du eta negua ahal duen erosoan igartzeko gordelekua bilatzeari ekiten dio. Hurrengo urtean babarrun soroetako lore eta lekatan erruz ugaltzen da.

Intsektu honen erasoari aurre egiteko babarrun landarearen lorealdian tratamendu kimikoei ekin behar diegu. Bestela bildu berria den babarruna hasieratik toki hotz batean jarriko dugu. Batzuk izozkailuan



ere sartzen dute baina ez da beharrezkoa. Nahikoa da 12°C-tik behera edukitzea, alean dagoen larbatxoa metamorfosia garatu ezinik hil egingo bait da, eta zenbait hotzikara sortzen dien gurgurioa ez da sortuko ■

JAKOBA ERREKONDO

ko munduan» jardunaldiak antolatu dituzte. «Masacre. Ven y mira» filmea eskainiko dute gaur. Bihar, berriz, «Rhuanda. Armas para una matanza» filme-erreportaia. Etzi «Bad el Oued city». Eta otsailaren 1ean, «Vender la guerra». Emanaldiak Nafarroako Museoan izango dira, 19.30etan.

ERAKUSKETA ALGORTAN

Algortako Kultur Etxean **Aurora Solano, Ines De las Eras eta Gloria Rubio**ren erakusketa dago ikusgai gaurtik eta otsailaren 10era artean.

URTARRILAK
30
asteartea

MUSIKA PEDAGOGIA IKASTAROA

Musika pedagogia aktiboari buruzko ikastaroa

antolatu du Foru Aldundiak oinarrizko hezkuntza orokorreko eta eskolaurreko

irakasleentzat, musika animatzailerentzat eta orohar musika irakasleentzat. Otsailaren 16an hasi eta 19ra bitartean izango da, Donostian. Izena emateko epea gaur amaituko da.

ERAKUSKETA EIBARREN

Urtarrilaren 19az geroztik, Eibarko Udaletxeko Kultur Aretoan **Nagore Agirre, Ester Fernandez, Ruben Gomez** eta **Nerea Zapirain** artisten pinturak izan dira ikusgai. Erakusketari gaur emango zaio akabera.

URTARRILAK
31
asteazkena

MINTEGIA BILBON

Zenbat Gara elkarteak antolatutako **Euskal Kantugintza Berria II. Mintegiaren** barruan, hitzaldia izango da 20.00etan. «Euskal poetak kantagintzan: Etxepare, Lizardi, Atxaga, Sarrionandia...» izango da aztergai.



Iñurrategi anaiek Cho Oyu eta Lhotsera egindako espedizioari buruzko diaporama aurkeztuko dute hilaren 26an, arratseko 20.00etan, Zumarragako La Salle ikastetxeako ekintza aretoan. Ezaugarriak: zortzi proiektore, 1.000 irudi eta 45 minutuko iraupena (10 minutuko hiru diaporama eta tartean bost minutuko azalpenak). Hilaren 30ean, berriz, Getxoko antzokian izango dira, arratsaldeko 19.00etatik aurrera.

O S A S U N A

«Berriro jaio», infartua gainditu ondoren

55 urteko gizonetako batek, Tuterakoa jaiotzez, hilabetez bizirik irautea lortu zuen, bentrakulu artifizialaren sistema bati esker bihotzko transplantea egin zioten arte, eta ondoren «berriro ere jaiozela» esan zuen pazienteak berak Nafarroako Klinika Unibertsitarioan, operazio kirurgiko konplexu guzti horiek jasan ondoren emandako aurreneko prentsaurrekoan.

Jose Cornago Zugasti ize-neko nafarrak, Tuteran hosteleriako negozio baten arduradun zenak, miokardio-ko infartu bat jasan zuen joan zen otsailaren 20an, eta ez nolana haiko gainera. Bihotza erasana geratu zitzaion,

eta ondorioz bihotz-gutxiegitasuna oso aurreratua eta atzeraezina bezala diagnostikatu zuten medikuek, egoera prekomatosoan sartuz.

Rafael Llorens zirujauak, kardiokirurgiako eta anestesiatiko espezialista mordoska baten buruan, operazio guztiz nobedosoan egin zion gure nafarrari, gorputzez kanpoko zirkulazio-sistema bat erabiliz. Operazioa martxoaren 29an egin zen eta bost ordu t'erdi iraun zituen. Bertan kanula batzuk sartu zitzaizkion eskuineko aurikulan eta birika-arterian pazienteari, eskuineko bentrakulu artifizialari lotuak bi biak. Ezkerreko bentrakulua ere kanulatu zitzaion, eta

aorta arterian injertua eginez beste kanula bat ezarri ere bai, guzti horiek sistema artifizialaren ezkerreko bentrakulari lotuak.

Hilabetez sistema horrek pazientearen bihotz gaixotua ordeztu zuen, eta aukera izan zuten medikuek alterazio desberdinak (gibelegoak, garunekoak, giltzurrunekoak) tratatu eta errekupe-ratzeko. 26 egunen buruan Jose Cornago transplantea jasateko moduan jarri zen, eta apirilaren 30ean emaile bat bazela jakin bezain pronto, maiatzaren 1ean bentrakulu artifizialak erretiratu eta bihotz berria transplantatu zitzaion, sei ordu iraun zituen operazio kirurgikoan.




Eta guzti hori, harriztekoa badirudi ere, Euskal Herrian gertatu zen, Iruñeko Unibertsitate-Eritetxeako Kirurgia Kardiobaskularreko Zerbitzuan ■

JABIER AGIRRE

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Eginberrara. 2.- Gehiegi edo komeni ez denenean mintzatzen direnak. 3.- Italiako dirua. Alderantziz, 3,141596. Bat eta bat. 4.- Iparraldean, izu. Alaitasuna erakusten duena. 5.- Ogi, hitz elkarketan. Errusiako eta Kazakhstango ibaia. Berrogeita hamaika. 6.- Jaialdiak. 7.- Trufak eta irainak jasan dituztenak. 8.- Bostehun eta bat. Nasa. Azkenekoa. Uranioa. 9.- Eako. Erdipurdiko. 10.- Ahuntzaren ar. Gakoa.

GOITIK BEHERA: 1.- Balio berekoa. 2.- Ehizan aritzen direnak. 3.- Har ezazu. Nafarroako ibilgailuetan. Musika nota. 4.- Gabezia. Ut! Röntgen. 5.- Errepikatuz, gorotza. Pluralean, fruitu mota. 6.- Txangoak. 7.- Zanutu. Estrontzioa. 8.- Zuloaren erdian. Bat. Joan den urteko. 9.- Labanak. Nor, pluralean. 10.- Akitu aditzaren infinitiboa. Iparretarrak. H₂O.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.

8 letra

Emakumea
Nazkatua
Pikondoa
Tropelak

7 letra

Baratza
Handitu
Kantari
Pilotak

4 letra

Adin
Adio
Aizu
Amak
Arku
Asto
Badu
Beha
Bera
Idor
Ipar
Jaka

Kala
Maiz
Neba
Oren
Orio
Ozta
Tati
Tira
Ukan
Urki
Urko
Zati



3 letra

Art
Bat
Nik
Sol

2 letra

Ai
An
EB
Ku
Ta
Uk
Ur
Ut


Zinpekoen Epaimahaia eta hizkuntz eskubideak

IZENA bera ere ez da oraindik erabat finkatu. Zinpekotza, Juradoa, Zinpekoen Epaimahaia, agian denak sinonimo baliagarri, agian lege bapateko horrek hiritarrongan piztu duen danbateko nahasiaren beste seinale. Tipiko, ohiko edo eta dogmatikotzat hartu izan dituzte neure ezagun batzuk, lege berri honen inguruan neronek aireratutako zenbait hausnarketa, 'hesi gorrigualdez inguratutako legea' izan zitekeela, kasu.

LERRO sorta honetan ordea ez naiz horretan luzatuko. Berrets besterik ez dut egingo, azpimarratuz gainera, esandakoa. Euskal Giartearen bizitza eta iharduera, oinarrian, mugitzen dituzten lege guztiak, den denak, 1978. urtean asmatutako Konstituzioa dute ama, errejionalzaleok hainbeste maite duten Gernikako Estatutuak barne. Burujabetasun gabeziaren ispilu.

Neure kezka, hizkuntza eskubideen aldetik doa oraingo honetan. Burujabetasun ezaren beste seinale-izpi bat den Zinpekoen Epaimahaiaren lege honek gure ahoaren jabe izatea ere ukatzen baitigu. Eta legearen artikulua idatziak argiak baldin badira zentzu horretan, are argiagoa Joaquin Gimenez majistraduak duela gutxi adierazitakoa. Dardara. Legearen testoak hizkuntz eskubideak bortxatzen baldin baditu, lege horren inguruan eginiko majistradu horren interpretazioak bortxaketa areagotu egiten du, ene ustez. Dardara, berriro ere.

ZINPEKOEN Epaimahaiaren legean hizkuntz eskubideak eta zuzenbide arloko prozedura penalek zenbait interpretazio orokor ez dira aintzat hartzen. Areago, bortxatu egiten dira.



LUIX BARINAGARREMENTERIA

Abokatua

Egia da ordea hizkuntz eskubide eta penal prozedurak dituzten zenbait printzipio epaitegietan egunero bortxatu, urratu egiten direla. Aspalditik. Ez da, beraz, kontu berria. Zinpeko Epaimahaiaren legeak, bestalde, arazo hau 'larriagotu' egiten du, hizketa egin dezaketenen kopurua asko zabaltzen duelako, entzungo dutenen belarriak askoz gehiago izango direlako eta hizkuntz eskubideak denontzat berberak baldin badira ere, bortxaketa jende gehiagorengan gerta-eman ahal izango delako.

TEORI mailan gabiltza oraindik. Balio juridikorik gabeko praktika saio bi besterik ez dira egin inguruko epaitegietan. Praktikak, benetakoak, emango digu bortxaketa horien berri, bere gordintasunean. Praktikak erakutsiko digu Euskal Herrian ez dagoela demokrazia-rik, euskaldunontzat ez dagoela justiziarik, berdintasunik, hizkuntzen munduan; espainola dela lehen mailakoa eta euskara bigarrenakoa, baita ofizialki ere. Aipu hori, tipiko, ohiko eta dogmatiko gerta badaiteke ere.

Joaquin Gimenez, Bizkaiko Entzutegi Probintzialeko majistradu nagusiak, euskaldunoi espainolez aritzeko iradokizuna doi-doi luzatu zigun. Begirunez joka dezagun eta, espainolez aritzeko epaitegietan. Zutabe bat baino, 'Argia'ren ale osoa mereziko zukeen aipamena izanik, ezin ditut hain tarte txikian datozkidan iritzi, uste eta lartasunak hemen utzi. Ikara, ordea, nagusi. Dardara.

BESTE ale oso bat ere mereziko luke Gimenez jaunak, bere agerraldi dizdiratsuan, proposatu zuen 'itzulpena'k (epaitegietan) eta laburki adierazi nahi dut horrela ere aipatu eskubideak modu bereberean bortxatuko liritekeela, eta arazoak lehengo beretsuan jarraituko lukeela.

Zinpekoen Epaimahaiaren inguruan, intsumisioarena serioski planteatu behar harko badugu ere, oraingoz, harik eta joko martxan jarri arte, itxaron eta haserako pausuetan sar gaitezen euskaraz, patxadaz, eta saia gaitezen ustezko demokrazia honen gezurra berben bidez bilusten. Zerri aska zain baitago aspaldi. Esaten den bezala, gero gero-koak.

ESKAITZA BEREZIA

ARGIA REN

HARPIDEDUNENTZAT

ARGIaren harpidedun bazara

ZEREN ZAIN ZAUDE?

Orain, gustoko tituloa eskura dezakezu prezio ezin hobean

gutxienez
kalean
baino
% 25a
merkeago

Diska eta Kasetak

1.350 pzta.

Konpaktoa

1.875 pzta.

Nobedade honetaz gain beste hainbat dago aukeran. Nahikoa duzu dei bat egitearekin eta behar duzun informazioa izango duzu



ESKAERA ORRIA

Izenburua	Prezioa	Kopurua	Guztira
Kobratu beharreko kantitatea			

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN ABIZENAK _____

KALEA _____ ZBKIA. _____ PISUA _____ LETRA _____

TFNOA _____ HERRIA _____ KODE POSTALA _____

PROBINTZIA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

VISA / KREDITU TXARTELA _____ SINADURA _____

IZEN ABIZENAK _____

TARJETA ZENBAKIA (16 digitu) _____

KADUZITATE DATA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____ SINADURA _____

eskura ezazu 1996ko egutegia

**AZKEN
ALEAK !!**

Ohol eta guzti nahi izanez gero

 **ARGIA**



*ohiko salmenta
lekuetan daukazu edo*

ARGIAra eskatu
Zirkuitu Ibilbidea, 15
20.160 Lasarte - Oria
(Gipuzkoa)

Tel.: 943 37.15.45

Faxa: 943 37.34.03

*Eguzkia eta ilargia
Kike Amonarrizen txisteak*

*Efemerideak eta santutegiak
Plater goxoenen errezeta
Jakingarri eta bitxikeriak*